

MAXIX ATZEN GUKA



EHUN URTE

MENDEA BETE BIZI


I N N O V A
AZPEITIA
HORTZKLINIKA

ZURITU HORTZAK
ETA PRESTATU
IRRIBARREA
UDARAKO

Jose Artetxe kalea 5
☎ 943-02 59 55



...erantzuna gara ...ALBERDI gara



943 16 98 78

Info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA



AZKOITIA - AINGERU KALEA

3 logela · 1 bainugela · 78m²
**Egoera onean dagoen
etxebizitza Aingeru Kalean**



**Salgai
165.000€**



AZKOITIA - BIZKARGI KALEA

4 logela · 1 bainugela · 80m²
**4 logelatako etxebizitza Bizkargi
Kalean**



**Salgai
200.000€**



MAXIXATZEN 433

2023- UZTAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Korapiloa Ane Olaizola, <i>Itzarri.</i> | 32 | Iritzia Lander Albizuri, <i>Demokrazia: ilusioa ala preziatua?</i> |
| 6 | Hitz bitan Juan Mari Bastida, <i>Acedoko kanpineko langilea.</i> | 33 | Zakelmari. |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Jon Andoni Martin eta Aitor Arruti, <i>Ikuspuntua.</i> | 34 | Erretratua Sabrina Romero, <i>marrazkilaria.</i> |
| 10 | Iritziak Juan Ramon Alberdi, <i>Ona ez, zatarra eta gaiztoa bai;</i> Yolanda Larrañaga, <i>Zoriontasuna.</i> | 38 | Plazan Bazan. |
| 12 | Erreportajea <i>Mendea gainean, sasoia soinean.</i> | 40 | Elkarrizketa Josu Odriozola, <i>Xatoken Moura irratsaioaren aurkezlea.</i> |
| 19 | Guka gara! | 44 | Iritzia Maite Lopez, <i>Gozamena.</i> |
| 20 | Erreportajea <i>Egurbide, etxe ondoko altxorra.</i> | 46 | Euskara Aitor Arruti, <i>'Lex iniusta non est lex'.</i> |
| 24 | Guka. <i>Norberaren gorputzaz harro, lodifobia jomugan.</i> | | Bertsoa paperean. |

MAXIXATZEN

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
azkoitia@ukt.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua

Ane Olaizola
Erredaktore taldea
Julene Frantzesena
Aitziber Arzallus
Ane Olaizola
Mailo Oiarzabal

Diseinu arduraduna

Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Enara Arozena
Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Arnaitz Rubio Aprea
Jon Andoni Martin

Juan Ramon Alberdi
Yolanda Larrañaga
Lander Albizuri
Naia Arrizabalaga
Gorka Larrañaga
Maite Lopez
Aitor Arruti
Eneritz Artetxe

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 1.000 ale



Babesleak:



PUBLIZITATEA

EGUZKI
belardanda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 • 943-50 34 47 **AZKOITIA**
Urbaitze 9 bis • 943-15 00 23 **AZPEITIA**

Web proiektuak
Software ingeniarietza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
943-85 08 74

e t k

Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com

br

arkitekturaestudioa
santaklara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com

PB
Sport

(Iruroako) 7 • 943-02 56 88
Kale Nagusia, 57 • 943-85 20 88
AZKOITIA

ttakun

NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com



**JARRI HEMEN ZURE
IRAGARKIA**

Dean

Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

**ETXEZA
TABERNA**

Etxeza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31

ATRASKUA
943-85 31 70

LATZ
TABERNA

APITAKU PIZAK
ENTSALADAK
PINTXOKAK
PLATER KONSERBUAK
RADIOAK
OGITARTEKOAK
ARDO ESKAINITZA ZABALA
SOMAKU ETA ARDO ERDO
PARRILLAK
LUPUNDATETAN 06:00 ARTE IRENTA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

zurt
taberna

OGITARTEKOAK • SANDWICHAK ETA HANBURGESAK
ENTSALADAK • RAZIOAK
GARAGARDO ETA ARDO ESKAINITZA ZABALA

TERRAZA HANDIA
ZUZENENKO EMANALDIAK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75



ALDAKO

**SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK**

SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 52 76
aldako.informatica@gmail.com

ZERBER
BURDINDEGIA

BEHAR DUZUNERAKO ALOR GUZTETAKO GAIAK AURKITUKO
DITUZU GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA,
MARGOLARITZA, ETXEA, ITURGINTZA, BIKOLAJEA
ETA ABARREKO TRESNERIA: HALA NOLA, TORLOJUAK,
ERRORDAMENDUAK, SARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

**ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"**

NAGUSIA, 39 • 20720 AZKOITIA • 938 35 31 05
www.ferriteriazerber.com

Itzarri



ANE OLAIZOLA

Kanpoan ilun da oraindik, eta behar baino lehenago, zerbaiten hotsak esnarazi nau, burrunba baxu baina gogaikarri batek. Azkura edo kilima, ez dakit zer den besoan sentitzen dudana, eta asaldazioz kolpatu nahi dut ukitu nauena. Isiltasuna. Eskerrak. Begiak itxi, eta oharkabeen buruak berriz ihes egin dit loaren mundu goxora...bzzzzzzzzzz, belarri ondoan entzun dudanera arte. Gorputza astindu, izara azpian sartu eta mila saiakera eginda ere, etenik gabe segitzen du bibrazio apal baina ernegagarriak. Azalari itsatsita jarraitzen du eltxoak, ezer baino egoskorrago, eta azkenean, itzartu beste erremediorik ez dut.

Jaiki naiz, baina ez suerte onean. Gaur ere tanketarik ez mahai gainean dudan kafesnean, baina neure buruari galdetu diot bakea ala gerra izango dugun aurrean dugun egunean. Oraingoz behintzat, arimarik ez inguruan; bai, ordea, oihalez betetako mendi bat zokoan. Iritsi da ordua zimurtutako arropen tontorra begi bistatik kentzeko, eta gogo txarrez, hasi naiz guztia bi besoekin altxatzen: galtzerdia, lurrera. Makurtu, eta behatz puntekin ozta-ozta eutsi diot. Musuzapia, behera. Beste eskuarekin hartu, eta oraingoan eskuoihala da erori dena. Horrela, behin eta berriz, nekea, bere zentzurik zabalenean, gailentzen den arte. Horixe bizitzaren errepresentazio grafikoa.

Badira zenbait egun hobe zenukeenak ohean gotortu mundutik ihesi; eltxoak zure azalera bezala, izarara bat egin eta begiak itxi. Saiatuta ere, ezin ezkuta dezakegu gainean dugun nekea, ekintzetan ez ezik, aldartean ere antzematen zaiguna. Izan ere, besteei men egin beharraren beharraz, hainbatetan uko egin behar geure buruari: batzuetan, mareak naraman lekura eramanda, eta besteetan, korrontearen kontra igeri.

Handien munduak sentiarazten gaitu txiki, eta horrek zalantzan jartzen du gure hitzek eta ekintzek har dezaketen bidea sarri; ahots beheran galdetzen dugu alferrikakoak ez ote diren egunero egin beharreko pausoak. Erraldoien espazioan ipotx sentitzen direnek, ordea, gogora dezatela, gauetan lo egiten uzten ez duen izaki ñimiño bat badela. ■■■

**IPOTX SENTITZEN
DIRENEK GOGORA
DEZATELA, LO EGITEN
UZTEN EZ DUEN IZAKI
ÑIMIÑO BAT BADELA**

Juan Mari Bastida: "Acedoko kanpineko bezero gehienak euskaldunak dira"

TESTUA: **JULENE FRANTZESENA**

ARGAZKIA: **UTZITAKOA**

Juan Mari Bastida *Atxui* (Azkoitia, 1960) Acedoko (Nafarroa) kanpineko behargina da, duela zazpi urtetik. Kanpin horretako tabernan eta jatetxean aritzen da zerbitzari lanetan, bere hitzetan "gustura". Dagoeneko hasi da lanpetuen ibiltzen diren urte sasoiak kanpineko beharginentzat, baina tarte bat hartu du azkoitiarrak Maxizatzenen galderei erantzuteko.

Zerk egiten du berezi Acedoko kanpina?

Kanpin oso familiarra da, eta hurrei nahiz helduei zuzendutako ekintza ugari izaten dira bertan. Igerileku txiki eta handi bana ditu kanpinak, padel pista bat eta futbol zelai bat ere bai, barbakoa egiteko leku handia du egokituta... Acedoko kanpinean bezero finko asko ditugu; gehienak euskaldunak dira, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak, batez ere. Egia esan, oso giro polita izaten da kanpinean. Bezeroentzako herri txiki bat da Acedoko kanpina.

Nolatan joan zinen hara lanera?

Nire emaztea Acedokoa da, eta beti izan dut harreman handia herriarekin. Azkoitiko Laja taberna kudeatu nuen sasoi batean, eta hura uztean, koinatuak esan zidan kanpinean hasi nahi al nuen lanean. Hala hasi nintzen, beraz, egiteko horretan. Emaztearen familiak etxe bat zuen Acedon, hura erosi egin genuen eta lanean naizen egunetan han egoten naiz.

Gustura aritzen al zara kanpineko tabernan lanean?

Bai, oso gustura jarduten dut tabernan nahiz jatetxean lanean, baina aldi berean, nekatuta ere sentitzen naiz jada.

Urola bailarako jende ugari joan ohi da kanpin horretara oporrak igarotzera, ezta?

Bai, urtez urte jende ezagun asko etortzen da kanpinera. Acedoko kanpina oso ezaguna da Urola bailaran, azpeitiar eta azkoitiar asko etortzen dira oporrak pasatzera. Duela 27 urte zabaldu zuten kanpina, eta ikaragarri hazi da ordutik hona. 15.000 metro koadro zituen

orduan, eta orain, 80.000 metro koadrotik gorako azalera hartzen du eremuak. Nafarroako kanpinik handiena da Acedokoa. Pentsa, 130 biztanle ditu herriak, eta kanpinean 1.500 lagun sartzen dira.

Egia esan, herriari bizia eman dio kanpinak.

Zein da zure lanaren alderik onena? Eta txarrena?

Jendearekin harreman handia egiten dugu egunerokoan, eta hori azpimarratuko nuke.

Udan, berriz, jende pila bat izaten dugu kanpinean, eta pixka bat agobiatuta ibiltzen gara... Baina, tira!

Aurretik beste kanpinen batean lan egindakoa al zara?

Ez. Ostalaritzan urte askotan aritutakoa naiz, baina Acedon hasi aurretik, sekula ez nuen kanpin batean lanik egin.

Kanpinzalea al zara?

Ez pentsa. Ez naiz askorik ibili izan kanpinetan...

Uda sasoiak hasi da. Nabaritzen al duzue kanpinean dagoeneko?

Bai, bai, asko. Dagoeneko jende pila bat dabil gurean, batez ere asteburuetan, eta lanean gogotik ari gara. Udan lan pila bat izaten dugu, eta jendearentzat ekintza pila bat antolatzen ditugu.

Acedoko kanpinera joaten denak zerekin egingo du topo?

Lasaitasunarekin. Bizikletan eta oinez ibiltzeko leku aproposa da, Lizarratik gertu dago, eta Iruñea eta Logroño ere inguruan daude.

Azkoitira etortzen al zara batere? Zer lotura duzu soterriarekin?

Astean bi egun izaten ditut jai, asteazkenak eta ostegunak, eta normalean, Azkoitira joaten naiz egun horietan. Azkoitia nire herria denez, gustura joaten naiz horra. Gainera, emaztea hor bizi da, eta harekin egoteko nahiz lagunak bisitatzeko aprobetxatzen ditut bidaiak. Kurioso da, oso: gure etxeko nafar bakarra emaztea da, eta bera da Azkoitian bizi den bakarra. Bi alabak irakasleak dira eta Nafarroan egiten dutenez lana, Acedon bizi dira; nik ere Acedon pasatzen dut astea. ■



Ikuspuntua

ARGAZKIA: **JON ANDONI MARTIN**

TESTUA: **AITOR ARRUTI**

Nondik begiratzen den, horixe kontua
behetik gorantz doaz begiak, igo nahian
goitik beherantz orobat, jaitsi beharrez
nondik begiratzen den, horixe tamaina. ■■■





JUAN RAMON ALBERDI

Ona ez, zatarra eta gaiztoa bai

Denok izaten ditugu aitortzen zailak diren gustuak edo zaletasunak. Batzuetan, afizio hori ez delako oso ohikoa gizartean; beste batzuetan, aldiz, ustez gaindituta ditugun zenbait pentsaera edo mundu ikuskera gogorarazten dizkigulako. Nik esango nuke azkenengoaren ildotik datorkidala ahalketzen nauen ekarritasuna, ezen konfesatu beharra daukat: gustukoak ditut western filmak. Afizio hori haurtzaroan atxiki zitzaidan, nolabait lagunarteko jolasak, txori habia bila aritzeak edo txokolate ogitartekoaren gisan, bakeroen eta indioen filmek ere ezinbesteko lekua zutelako gure umezaroan. Iragan mendeko 60ko hamarkadan, etxean telebistarik ez genuenez, larunbat arratsaldeetan tabernatik tabernara haur andana ibiltzen

ginen telebistaz ematen zuten bakeroen pelikula ikusi nahian, eta batetik bidaltzen gintuztenean, hurrengora joaten ginen pelikula jarraitu ahal izateko. Eta igande arratsaldetan, zineman ere ildo bereko filmez gozatzen genuen.

Ez dakit, agian haurtzaroko eremu idilikoaren oroimena gogorarazten duen sekuentzia bat baino ez da izango afizio hori: galdutako Arkadia moduko bat. Apika, paisaia ikusgarriek eta bukolikoek sortua, edo zaldien trosta hots zalapartatsuek biztutako arretaren ondorioa. Auskalo. Dakidana da, orain ez ditudala ikusten haurtzaroan, eta akaso geroxeago ere barneratzen nituen gisan, baizik eta oso era ezberdinean. Esan daiteke, film horiek txiki-txikitatik barnarazi ziguten mundu ikuskerak eta gizarte ereduak pozoiz baten

gisara funtzionatu zuela, eta funtzionatzen duela, pentsamendu eta ideologia zehatz batzuen mesedetan. Eta euskara batuaren arauak errespetatzen ez dituzten testuen akatsak aurkituz euskara batua landu daitekeen gisara, pelikula horietan hautematen dudana ideologia arkaikoa analizatzen ahaleginduz igarotzen dut orain denbora. Eta ideologia hori da, hain zuzen ere, haurtzarotik barnarazi digutena. Izan ere, emakumeekiko gutxiespenean, gizonen maskulinitatean, edo gizartean "onak" eta "txarrak" bereizten dituen muturreko asimetrian heziak izan gara.

Emakumeei dagokienez, beti agertzen da neskaren bat film horietan, zeina protagonistarekin maitementzen den, nolabait genero bitarraren eta heterosexualaren aukera bakarra

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



YOLANDA LARRAÑAGA

Zoriontasuna

Haurtxo bat besterik ez nintzen amona baserriko ganbaran batera eta bestera aurkitu nuenean, urtarileko arrats ilun eta triste hartan. Bera konturatu gabe, minutu luzez hari begira egon nintzen. Ganbara zahar hartan zeuden kaxa, armairu eta kaxoi guztiak irekitzen eta ixten zebilen zoro baten moduan, irri izpirik gabe, bekain zimurretan. Azkenean, egonezinaren eta jakin nahiaren ondorioz, zera galdetu nion: "Amona, zertan zabilta? Zer galdu zaizu?". Begietara begiratu zidan goxo, eta horrela erantzun zidan: "Lastana, zoriontasunaren bila nabil. Gazte nintzenean edozein lekuetan aurkitzen nuen, eta orain, zahartzaroan, kaxa eta kaxoi guztiak irekita ere ezin dut aurkitu. Hemen nonbait ezkutatua egon behar du".

Pena eta zer pentsatu ikaragarria eman zidaten hitz goxo, goibel eta benetako haiek. Zergatik galdu zuen amonak zoriontasuna? Adina ote du zoriontasunak? Gu ote gara zaintzen ez dugunak? Zorionsu izateko gero eta gauza gehiago behar ditugu, beharbada?

Badaezpada ere, amonarena ez dakigun guri gertatu, saia gaitezen zoriontasun uneak ondo gordetzen, ez kaxa batean, bihotzean baizik. Agian horrela, bihotza bizirik dugun bitartean, zoriontasuna ere bizirik izango da gugan. ■

eszenifikatuz. Gainera, emakumearena genero ahul gisa irudikatzen da, beti gizonen esanetara eta gurarira makurtua. Hitz gutxitan esanda, sexurako objektu eta zaintzarako subjektu bilakatua.

Gizonen kasuan, maskulinitatea bere gordintasun garratzenean ageri da. Indarra, ausardia, bipiltasuna ezinbesteko ezaugarriak bilakatzen dira "behar bezalako gizona" izateko. Arerioei, muturrekoa; lagunei, indar erakustaldia; emakumeei, derrigorrezko musua, eta utziko ez balu, belarrondokoa. Noski, eszenario horretan ez da "erdizkako" gizonik ametitzen, eta koldarkeria edo ahuldadea iseka bide izaten dira. Homosexualitatea, osteria, dagoenik eta krimen handiena baino zitalagotzat jotzen denez, aipaezina da.

Onaren eta txarraren arteko muga, berriz, oso nabarmena da. Esaterako, banakako pertsonaiekin: protagonista (mutil ona) eta arerioa (mutil txarra); edo taldeak bereiziz: ejertzitza eta indioak, bakeroak eta abere lapurrak. Alabaina, ontzat hartzen denak irabazten du beti, eta gainera, txartzat jo denarekiko halako gorroto zitala sentiarazten dute.

Errealitatearekin alderatuz gero, film horietan agertzen denak gaurkotasun gehiegi du. Emakumeetan, eraso sexistak, derrigorrezko zaintzaren itzala eta tratatu txarrak. Gizonetan, lehiakortasuna, maskulinizazioa eta homofobia. Gizartean, eraso beharreko herrialde txarrak eta haiei erasoko dieten herrialde onak (AEBak kasu). Mende erdi luzea ez da alferrik igaro, baina tiroek toki bertsutik dihardute. ■



Mendea gainean, sasoia soinean

Jabier Azpitarte 'Imuntzo'-ri hilabete batzuk besterik ez zaizkio falta 103 urte betetzeko, Maite Aldazabal 'Galo'-k mendea bete du aurten, eta Gloria Alberdi 'Metxa' datorren urtean iritsiko da urtemuga borobil horretara. Oraindik ere burua argi eta ibilera arina dute hirurek, eta kafe baten bueltan, umetako eta gaztetako oroitzapenei hautsak kendu eta horiek Maxixatzeni kontatzeko tartetxoa hartu dute.

Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Duela ehun urte jaiotakoentzat, benetako erronka zen 50 urteen langa gainditzea. Baziren gehiagorekin hiltzen zirenak, baina baita gazte askorik joaten zirenak ere. Hamarkada gutxitan, euskal herritarren bizi itxaropena nabarmen luzatu da, eta gaur egun, Euskal Herriko bizi itxaropena Europako zein munduko handienetakoa da. Orain jaiotzen diren emakumeak batez beste 86 urte biziko dira, eta gizonak, 81 urte inguru. Ehun urteak harrapatzea, ordea, beste kontu bat da. Hori ez dago edonoren eskura, ez lehen eta ez orain. Baina Azkoitian badira estatistikak birrinduta mendeari gain hartu dioten herritarrak; nola hartu, gainera. Jabier Azpitarte *Imuntzo* da horietako bat. Iazko azaroan 102 urte beteta, ondo irabazia du azkoitiarrik zaharrenaren titulua, eta hala delako, adinekoen ordezkari bezala iazko andremarietan txupinazoa botatzeko aukera eman zion udalak. Ondo bidean, 103 urte beteko ditu aurten. Mendeari gain hartu dion beste azkoitiarra Maite Aldazabal *Galo* da; hark otsailean bete zituen 100 urte. Eta badira ehun urtera ailegatzeko

hilabete batzuk besterik falta ez zaizkien beste batzuk ere; horietako bat da Gloria Alberdi *Metxa*. Zer kontatua izango dutela iritzita, kafe baten bueltan elkartzeko gonbidapena egin die Maxixatzenek, eta hiruek eman dute baiezkhoa, asko pentsatu beharrik gabe.

Jausoroko kafetegira ordurako eta apain azaldu dira hirurak, alaba banak lagunduta, eta a zer poza hartu duten elkar ikusi dutenean. Aurretik ezagutzen zuten elkar, umetatik, baina urte mordoa zeramaten elkarrekin aurrez aurre egon gabe. Buruz argi daude hirurak, eta segituan hasi dira oroitzapenei hautsak kentzen. Aldazabalek eta Alberdik ondo gogoan dute elkarrekin zenbat jolas egin zuten umetan, Goikokalen, sokasaltoan eta. Azpitartek, berriz, kuadrillakoa zuen Alberdiren anaietako bat, Juanito, eta biek ala biek oroitu dute nola alde egin zuen hark Argentinara.

Bizkargi Dorrean jaio zen Azpitarte 1920an, eta bera izan zen zazpi anai-arrebetan zaharrena. Aita Imuntzo baserrikoa eta ama Agerreberrikoa zituen; beraz, aitagandik datorkio ezizena. Klean bizi arren, baserri baten antzeko etxea zela dio, ez zutela ez ur korronterik, ezta komunik ere, justu-justu



Gloria Alberdi 'Metxa', Maite Aldazabal 'Galo' eta Jabier Azpitarte 'Imuntzo'.

bonbilla bat izaten zutela sukaldean, argi askorik egiten ez zuena.

Aldazabal Plazaberrin jaio zen, 1923an. Ama Axiri baserrikoa zuen, eta aita Mendarotik etorria. Zortzi seme-alaba izan zituzten haiek eta horietako bat zen Maite. Bizimodu oso pobrea izan zutela dio, bai ezkondu aurretik, baita gero ere. Joxe Gogorza Galorekin ezkondu zen Aldazabal, eta lau seme-alaba izan zituzten, nahiz eta bat ume-umetan hil zitzairen.

Senarraren ezizena hartu zuen Adazabalek, eta Maite Galo bezala ezagutzen dute herrian.

Alberdi, berriz, Goikokalen jaio zen, 1924an. Bederatzi anai-arreben artean bigarren gazteena zen Gloria; gaur egun bizi den bakarra da. Manuel Larramendi Metxarekin ezkondu zen eta alaba bakarra izan zuten: Gloria. Alberdik ere senarraren ezizena hartu zuen eta Metxaneko Gloria gisa ezagutzen dute herrian.

Mendea gainean izan arren, buruz argi eta ibileraz arin daude hirurak. Bastoi baten laguntza aski du Alberdik, bi bastoiekin erosoago ibiltzen da Azpitarte, eta taka-taka batekin seguruago sentitzen da Aldazabal, baina, gainontzean, ez dute aparteko

laguntzarik behar. Aldazabal eta Azpitarte alabetako batekin eta haren familiarekin bizi dira azken urteetan; Alberdi, aldiz, bakarrik bizi da, laguntzaile baten eta alabaren bisita egunero izaten dituen arren.

Ehun urtera eta gainera sasoi horretan iristeko sekretuaz galdetuta, "lana galanki egitea" azkar asko erantzun du Azpitartek; "eta burua lantzea ere bai, nik behintzat asko irakurri izan dut beti, eta burua argi izan dut". Beste biek ere lan asko egindakoak direla ziurtatu dute, eta gainerakoan, "sano-sanoak izan denak", esan du Alberdik; "bai, orain aldean sanoak", erantsi du Aldazabalek. Adibidez, Azpitarteri beti gustatu izan zaio ibiltzea: "Gaztetan mendira joaten ginen asko, eta oraindik ere egunero egiten dut bueltatxo. Aurrena mezetara joaten naiz, eta handik irtendakoan, oinez ibiltzera".

Ohitura osasungarriez aparte, genetika oso ona izan dute hirurek. Azpitarte behin bakarrik egon da erietxean ingresatuta. "Takikardia izan nuen, bihotza azkarregi hasi zitzaidan, baina ospitalera ailegatu nintzenerako lasaitu egin zen". Bi egun pasatu zituen ospitalean, bizitza guztiko bi egun bakarrak. Sekula ez diote



ebakuntzarik edo antzekorik egin Azpitarteri, eta ezta Alberdiri ere. Aldazabali, berriz, heste sobrea kendu zioten aspaldi, ezkondu aurretik, baina besterik ez.

Gogorrena, gerra

Ehun urteotan bizi izan dituzten momenturik gogorrenak zeintzuk izan diren galdetuta, "gerra" erantzun dute hirurek, inolako dudarik gabe. 12 urte zituen Alberdik, baina, hala ere, nahi lukeena baino gehiago akordatzen da orduko. "Garai oso gogorra izan zen, pasatu ez duenak ezin du irudikatu hura zer zen, baina gu bizitza guztirako markatuta utzi gintuen". Baietz dio Aldazabalek: "Gu biok batera ginen gerra garaiko istorio haietan. Hango zirti-zarta haiek; horiek sekula ez dira ahazten. Beldur eta nahigabe handiko garaiak izan ziren. Egun batean entzuten genuen bat eraman zutela, hurrengoan bestea... Ezagunak tokatzen zirenean a zer nahigabea hartzen genuena, eta zoritxarrez, asko izan ziren horrelako egunak".

Azpitarre gerran ez zen ibili, baina bai gerrarako prestatzen. 18 urterekin joan zen soldadutzara, eta bost urte egin zituen han. "Lehendabizi hiru urte eta erdi egin nituen. Neure ustetan lizentziatuta

itzuli nintzen etxera, baina handik lau hilabetetara berriz deitu zidaten, Afrikan ingelesten eta frantsesen lehorreratzea egon zelako, eta beste urte eta erdi egin behar izan nituen. Errepideak egiten aritzen ginen; Lezotik Lesakarako bidea egiten jardun genuen".

Gerrari lotutako pasadizo bat bitxi bat kontatu du Azpitartek, hiru urte lehenago, 1933an, izan zen izar aldaketarena. "Ordubetea zortzi mila izar pasatzen ikusi genituen. Ikusi ez zuenak ezin sinestekoa da. Herri osoa gora begira egon zen. Orduko zaharrek esaten zuten horrek gerra ekartzen zuela, abisu bat zela, eta ez hala zelako, baina handik hiru urtera Gerra Zibila etorri zen". Alberdiri eta Aldazabali galdetu die izar aldaketaz gogoratzen diren, baina haiek ezetz.

Garai alaiagoak

Gerra bukatuta, bestelako garaiak etorri ziren herrira. Alberdik eta Aldazabalek gustuko zuten kalean ibiltzea eta ahal zutenean lagunekin planak egitea. Bero egiten zuenean Altxibarko presara bainatzera joaten hasi zirela kontatu du Alberdik: "Gerra akabatuta zegoen ordurako eta Rosarito lagunarekin hasi nintzen presara joaten. Gogoan dut nola gona edo soineko zaharra jantzita joaten



"NESKA BAT HAMABIETAN ERRETIRATZEA IKARAGARRIA ZEN; A ZER ERRIETA EGIN ZIDANA AITAK"

MAITE ALDAZABAL

"GARAI HARTAN DEN ZEN DEBEKUA ETA BEKATUA, ETA HALAXE EGOTEN ZEN KONFESIONARIOA"

GLORIA ALBERDI

"BURUA LANTZEA GARRANTZITSUA DA, ASKO IRAKURRI IZAN DUT BETI ETA BURUA ARGI IZAN DUT"

JABIER AZPITARTE

ginen bainatzera. Artean ia inor ez zen ibiltzen, baina egun batean, arropak aldatzen hasi eta han ikusi genituen hiru mutilzahar guri begira". Beste batean, itolarrian zegoen gizonezko bat uretatik ere atera zuen Alberdik, hantxe, Altzibarko presan. "Larri zebilela ikusi nuen eta laguntzera joan nintzaion. Eskua luzatu zidan eta luma balitz bezala atera nuen. Harrezkero, kalean topatu izan dudana guztietan etorri izan zait eskerrak ematera, bizitza salbatu niola eta. Nonbait, hark ez zekien igerian, eta nik, berriz, neure kasa ikasitakoa, baina nahiko ondo moldatzen nintzen, eta egun hartan balio izan zidan hari laguntzeko".

Presara ez ezik, hondartzara ere joaten ziren Alberdi eta haren lagunak, eta Aldazabal ere joandakoa da noiz edo noiz. Debako hondartzara joaten ziren, oinez. "Aittola Zaharrera igo, handik Itziarrera irten eta gero Debara. 05:00etan abiatuta joaten ginen; joan nahiko erraz egiten ginen, baina gero etortzen lanak".

Oroitzapen politen artean, mutilekin izandako lehen hartu-emanak aipatu ditu Aldazabalek. "Mutilak batzuetan etortzen zitzaizkigun, eta beste batzuetan ez. Kanean ibiltzen ginen gora eta behera, zein mutil etorriko, beti zain".

Albotik barre egin du Alberdik, hark ere zerbait badakienaren seinale. "Gu sekula ez ginen arriमतzen, beti zain, baina gugana etorri ordez beste norbaitengana joaten baziren, ederra atsekabea".

Hiru neska Aizarnazabalgo Ibañarrietara auzora joan zirenekoa kontatu du Aldazabalek.

"Autobusa hartuta joan ginen, baina gogoan dut autobusak kaminbarrenean laga gintuela, eta handik Ibañarrietara aldapa galanta igo behar izan genuela. Festa eguna zen eta gustura joan ginen hiru neska. Musika zegoen, jendea dantzan ari zen, eta gu, hantxe, pareta bazterrean, baten bat etortzeko zain. Bada, halaxe pasatu genuen arratsalde osoa, arratsalde guztian inork ez baitzigun begiratu ere egin, eta atzera berriz etxera. Joanda bezala, autobusez bueltatzea asmoa geneukan, baina hanka egin zigun, eta gauerdian ailegatu ginen etxera; a zer errieta egin zidana gure aita zenak. Garai hartan neska bat hamabietan erretiratzea ikaragarria zen, ez gaur bezala. Mutilak noiz etxeratzen ziren ez zuen axola, baina neskek ez zeukaten ordu horietan kanean ibiltzerik". Arrazoia eman dio Alberdik: "Kanean berandu ibiltzea debekatuta zegoen, mutilekin ibiltzea ere bai, garai hartan dena zen



debekua eta bekatua, eta halaxe egoten zen konfesionarioa, beti sekulako jende ilararekin".

Formalxeagoa zen Azpitarte, berak kontatu duenaren arabera behintzat. Mendira joatea-eta gustatzen zitzaion, baina erromeriara gutxi. "Urtean behin joaten nintzen Itziarrera, eta hara ere etxean lagatzen zidatenean. Gogorra zen gure aita, eta etxetik irteterako lan guztiak eginda utzi behar izaten nituen".

Lanari beldurrik ez

Ehun urteotan makina bat lan egindakoak dira hiru protagonistak, baina lanari sekula ez diote izan beldurrik. Alberdi eta Aldazabal Miserikordian ibili ziren eskolan, mojekin; lehendabizi sor Mikaelarekin eta gero sor Felisarekin. "Zittel-zittelak" zirela ziurtatu dute. Liburu bakarra izaten zutela esan dute, eta batez ere matematikako oinarritzko kontuak ikasi zituztela, "baina askorik ez". 11-12 urterekin umezain joan zen Aldazabal, eta Alberdik ere hamar bat urte egin zituen Donostian, anaia baten etxean, hari laguntzen.

Azpitarte ere Miserikordian hasi zen eskolan 3 urte zituela, eta handik La Salleko fraideen eskolara joan zen, Floreagara. Gerora, fraide horiek Floreagatik bidali egin zituzten, eta gogoan

du Julio Urkixon, Guardia kalean eta eliza atzeko kantzelean banatuta, gurasoek kudeatzen zituzten gela batzuetan jasotzen zituztela eskolak. 14 urterekin, ikasketak bukatuta, Bilboko La Salleko fraideen eskolara joan zen morroi, eta urte eta erdi inguru egin zituen han.

Azkoitira bueltan, makina bat abarketa egitea egokitu zitzaion Aldazabali eta Alberdiri. Aldazabalek kontatu duenez, ezkondu aurretik emakumeek etxetik kanpo lan egitea normala zein, baina behin ezkondu, etxetik kanpoko lana utzi egin ohi zuten familiaren ardura hartzeko. "Lau ume izan nituen eta haien zein etxearen kargu ni egiten nintzen, baina gizonak ez zuen gehiegi irabazten, eta etxetik kanpoko lanarekin ere jarraitu egin behar izan nuen familia aurrera atera ahal izateko. Halaxe, erreportzaketan atera nuen bizimodua aurrera, ahal nuen moduan". Intsaustiko fabrikari ibili zen lanean.

"Abarketentzat trentzak egiten genituen han, baina zorua eta oihala josten ere ibilia naiz. Etxera ekartzen genuen lana, etxean egiten genuen, eta gero fabrikari entregatu. Bizitza guztia abarketak egiten pasatu dut".

Alberdik ezkondu arte jarraitu zuen etxetik kanpoko lanarekin. "Garai hartarako oso berandu ezkondu nintzen, 36 urterekin, eta 40 urterekin



izan nuen alaba. Hortik aurrera, etxea eta familia zaintzea izan ziren nire lanak".

Azpitarre, berriz, era askotako lanak egindakoa da. Bere amak etxean abarketak josten zituen, eta 10 urterekin hasi zen hari laguntzen. 1941ean, haien aitak etxe alboko lursail bat alokatu zuen, eta aitzurrean-eta lan asko egin behar izan zuela dio etxean gosarik pasatu ez zezaten. 1948-1949 inguruan, berriz, Alaska izeneko izotz lantegia zabaldu zuten Guardia kalean, Guardia Zibilaren kuartelaren ondoan, eta han hasi zen. Hamabi orduan egiten zen izotza, eta hura zaintzen egoten zen bitartean, liburuak irakurtzen egoten zen Azpitarre.

Gerora, etxe ondoko Alberdi lantegian abarketentzako gaiak egiten jardun zuen Imuntzok. Kotoizko oihalak eta zakuak egiten zituzten han. 1968an erre egin zen lantegia, eta handik aurrera altzariak egiteari ekin zion, eta beren egur lantegia ere sortu zuten: Gurola. Han hartu zuen erretiroa Azpitarrek, 62 urte eta erdirekin.

Irratiak konpontzen ere trebea zen Azpitarre. Alberdi lantegia erre zenean, irrati eta telebistaren gaineko ikastaro bat egin zuen Azpitarrek. Ordurako irratiak muntatzeko beste ikastaro bat ere egina zuen, 16 urterekin. "Betidanik gustatu

izan zait irratiak muntatzea eta konpontzea; neure kasa ikasi nuen. Lan asko eta diru gutxi lortzen nuen, baina gustuko nuen". 1958an, Baztartxo zinema aretoa eraiki zutenean, bera izan zen lehenengoa filmak botatzen. Hamahiru urte inguru egin zituen han. Lan horretan aritu zen Alberdi lantegian lan egiten zuen bitartean; bi lanak uztartzen zituen.

Alberdi lantegia aipatuta, han pasatutako estualdia etorri zaio burura Azpitarteri, 1953ko uholdea izan zenean. "Handia izan zen", gogoratu du. "Euria hasi zen; ez zuen zaparrada handirik egin, baina etenik gabe jarraitzen zuen euriak. Ibaiak gora zetorrela eta, lantegiko materiala gora jasotzen jardun genuen, urak ez harrapatzeko. Azkenean, lantegi barruraino sartu zen ura, eta etxera joan ezinda geratu ginen urak harrapatuta. Han igaro genuen gau osoa, beldurrez. Urak baretu zirenean irten ginen, eta esan ziguten autobusean itota hogeitaz hildako izan zirela Iraetan, haietako bost azkoitiarrak ziren".

Mendea gainean izanagatik, bizitzeko gogorik eta ilusiorik ez zaie falta hirurei. Eskatzen duten bakarra da gelditzen zaizkien urteak osasunez ondo pasatzea. Egungo gazteentzat, berriz, mezu bakarra: arazoak arazo, beti aurrera egin dezatela eta pertsona onak izaten saia daitezela. ■■■

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukt.eus o 943-81 38 41

Garaian garaikoa



MAITANE ELDUAIEN (GUKA ESTRATEGIAREN KOORDINATZAILEA)



Topiko bat hemen: garaiak aldatu egiten dira. Komunikazio arloan ere ezin esan dezakegu zaharrak berri direnik. Garai bakoitzak bere izaera du, eta proiektu bakoitzak bere aldia. Teknologia berriek eta Internetek urte gutxiren bueltan hankaz gora jarri dute komunikazio prozesuen paradigma. Komunikatzeko molde berriak sortu dira, eta komunikabideei molde horietara egokitu besterik ez zaie geratzen.

Erronka berriei aurre egiteko xedearekin, Urolako Komunikazio Taldea (UKT) sortu genuen, 2019an. Azkoitiko Maxixatzen, Azpeitiko Uztarria, Zumaiako Baleike, Orio-Aiako Karkara, Zarauzko Hitza, Urola Kostako Hitza eta Erlo telebista batu ginen UKTra. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da gurea, komunikazio proiektu bat, tokikotasunari erantzungo dion egitura bat, lantalde bakarrean bilduta, aurrekontu bakarrarekin eta xede berberarekin: euskarazko tokiko hedabide onenak eskaintzea herritarrei.

Bost urteren ondoren, urte berriarekin batera, jauzi garrantzitsua emango dugu: GUKA markaren azpian bilduko gara kooperatibako hedabide guztiak. GUKA azken hiru urteetan egindako hausnarketa prozesuaren emaitza da. GUKA estrategia marraztu dugu, kalitatezko edukiak ipar direla.

Tokikotasunari erantzun nahi dion marka komun bat da GUKA, produktu zehatz bati baino,

proiektuari berari indarra eman nahi diona. Orain artean bezalaxe, hedabideak tokikoa izaten jarraituko du, aldizkaria eta .eus webgunea ez dira desagertuko. Beroketa lanak hasi ditugu, eta horregatik ikusten hasita zaudete GUKA izena gure euskarrietan. Baina jauzia marka kontua baino haratago doa: eskaintza bera berritzera goaz, bazkideei ahalik eta zerbitzu onena emateko asmoz.

Bazkideak eta zerbitzua. Horretan nahi dugu pausatu, arnasa hartu eta sakondu, komunitatea baita honi guztiari zentzua ematen diona, gure sorreraren eta izatearen muinetako bat. Komunikabideek daukaten desafio handienetako baten aurrean gaude, orde. Gure irakurleak gero eta digitalagoak dira; urtetik urtera, handitzen doa gure atari digitalak bisitatzen dituzten irakurleen kopurua. Horri erantzuteko, 30 langiletik gorako lantaldea daukagu, egunero, gurean ahalik eta informazio eguneratuen emateko, euskaraz. Komunitatea indartzearekin batera, bazkideetza digitalari ere heldu beharrean gaude, gure atariak doan direlako, baina ez debalde.

Zero kilometroko komunikabideak dira UKT osatzen dutenak, tokikoak, gertutik eta bertatik kontatzen ditugu herriko gertakariak, eta, nekazarien moduan, garaian garaiko produktuak erein behar direla uste dugu, kalitatezkoak, uztak onak izan daitezzen. Horretara dator, hain zuzen ere, GUKA estrategia. ■

Egurbide, etxe ondoko altxorra

XIX. mendearen amaieraz geroztik, Egurbide monumentu multzoan dagoen izen bereko dorrean bizi dira orbegozotarrak, eta herrian martxan jarraitzen duen errota bakarra dute bertan. Aurreko belaunaldiek han egindako lanarekin lotzeko balio die leku horrek, eta horregatik, mimos zaintzen duten ondarea da beraiena.

Testua eta argazkiak:
Ane Olaizola

Euskal Herriko antzinako gizartea zein ekonomia ezin dira ulertu errotarik gabe, batez ere Erdi Arotik aurrera, ogia egiteko edo abereentzako pentsua lortzeko berebiziko eragina izan baitzuten orduko herritarren egunerokoan. Zerealak ehotzeko ezinbestekoak izan ziren tresna horiek, eta loraldia XVII. mendean izan zuten, aztarnak lehenagokoak baldin badira ere. Aurreko gizaldietan, ur errotak herriko erreken ondoko baserrietan ikustea ohikoa zen, baina egun, horien arrasto batzuk besterik ez daude. Ordea, bada salbuespen bat: Aingeru Guarda ermitaren ondoan zutik den Egurbide ur errota; ondareaz jakitun, errotaren jabe orbegozotarrek mimos zaintzen dute etxe alboan duten "altxorra".

2008tik Eusko Jaurlaritzaren kultur ondasun izendapena duen monumentu multzoaren barruan daude Aingeru Guarda ermita, Egurbide dorretxea zein izen bereko errota eta haren ondoko burdinola zena. Historia luzeko ondare multzoa da hura: dorretxearen aurreneko datu historikoa 1560koa da, eta Oñatz eta Loiolako Madalena –Loiolako San Inazioaren arrea– zen orduan monumentu multzoaren jabea. Burdinolaren eta errotaren aurreneko datu historikoa, berriz, 1554koa da; Oñatiko artxibategian jasota dagoenez, ordurako martxan ziren bi lantegi horiek. "Errota lehenagokoa da, baina ez gaude ziur noizkoa den. Aranzadiko Javier Castro historialariarekin ari gara hori ikertzen, errota harriei buruz azterketa asko egin ditu-eta hark", esan du Jon Orbegozok, monumentu multzoan bizi den Orbegozo familiaren bosgarren belaunaldiko kideak. Ikerketa horren barruan, antzinako errotaren



harriak nongoak diren jakin du familiak: "Bi errota harri Usurbilgo Andatza auzoko harrobi batetik ekarritakoak dira, duela 400-500 urtekoak. Aldiz, beste harri pareia Oñati eta Gorbeia arteko harrobi batekoa da".

Orbegozotarrak 1882az geroztik bizi dira Egurbide monumentu multzoan; sendiak hainbat hamarkada errentan igaro zituen han, eta 1995ean egin zen lurren jabe. Ordea, bitarte horretan ere errota martxan izan zuten, Jonen aita Juan Bautista Orbegozok kontatu duenez: "Nire aitak -Xanti Orbegoza- 36ko gerran borrokatu zuen, eta handik itzuli zenean, errotan jarraitu zuen lanean, senideon laguntzarekin. Ondoren irina saltzen hasi zen Azkoitiko plazan eta herriko pentsu biltegietan. Zumarragara ere joaten ginen astoz irina eramatera, eta behar genuen beste zerbaitekin itzultzen ginen handik. Izan ere, orduan, salerosketak trukearen bidez funtzionatzen zuen". Gerraondorenean, etxean errota izatea "izugarritzko zortea" izan zen familiarentzat, hari esker senideek ez zutelako goserik pasatu. "Askotan taloa besterik ez zuten jango, baina behintzat jateko modua zuten, eta horrekin egin zuten aurrera", dio Jonek.

Juan Bautista mutil koskorra zen garai hartan, baina ondo gogoan du errotan aitarien ondoan igarotako denbora: "Lo egindakoa naiz hemen, aita irina egiten ari zen bitartean". Izan ere, garai hartan, errotariak gauez egiten zuten maiz lan, inspektoreak saihesteko: "Guardia zibilek ikusten bazuten errota martxan zegoela, askotan irina kentzen ziguten, eta ezer gabe geratzen ginen. Orduan, gauez egiten genuen lan, errotari tranga kenduta, modu horretan errotak

Juan Baustista eta Jon Orbegoza, Egurbide errotan.



Goian, errotak artoa irinduta. Behean, kanpoaldean dagoen errota harria, duela 400-500 urtekoa.

zaratarik atera gabe jarraitzen duelako lanean. Trangarik gabe lan egin eta etxearen atzealdean genuen zulo batean ezkutatzan genuen irina". Ehotu ez ezik, saldu ere eguna argitzerako egiten zuten batzuetan, errotan bertan. "Zenbaitetan, arto alea ekartzen zuen jendeak, eta guk irina egiten genion. Ez genuen ezer kobratzen, baina hamar kilo irineko, kilo bat gureztat izaten zen".

Uholdeek geldiarazita

13 urte zituela hasi zen Juan Bautista etxetik kanpo lanean; ordura arte jardun zuen aitari errotan laguntzen. Semearen laguntzarik gabe, hark errotari izateari utzi behar izan zion: "Seme guztiok lanean hasi ginenean, hura bakarrik geratu zen. Aldi hartan, gainera, uraren erabilera kobratzen hasi ziren, eta arrazoi horiengatik, hark ezin izan zuen errotatik bizitzen jarraitu", dio Juan Bautistak. 1972an utzi zioten jardunari, eta hamarkada bat beranduago, erabat hondatuta geratu zen errota, uholdeek eragindako luizi baten ondorioz. "Errotaren goialdeak ez zuen kalterik izan, baina azpialde osoa lurrez bete zen. Horrela egon zen denbora luzean, itxita eta erabili ezinda; errota ez genuen ukitu ere egin urte askotan", esan du Jonek.

2004an, ordea, errota martxan jartzeko "eroaldia" izan zuen Jonek, eta horretan aritu zen zortzi bat hilabetez, senideen laguntzarekin. "Astegunetan, lanetik atera eta errotan elkartzen ginen guztiok, kalteak konpontzeko. Asteburuak ere guztiz aprobetxatzen genituen horretarako". Jonek azaldu du osabek "izugarri" lagundu ziotela bakarrik egin ezingo zukeen lanean, baina argitu du arrisku handiak hartu zituela, "bizitza" jokatzearaino: "Lur azpian, erretenetan sartuta ibili nintzen, ur bonben laguntzarekin lurra eskuz ateratzen". Neguan hasitako lanak udan izan zuen emaitza, errota orduan jarri ahal izan baitzuten berriz martxan.

Aita-semeen arabera, familiarentzat "hunkigarria" da errota berriz martxan jarri izana, beraien aurreko belaunaldiak lotzeko balio dielako leku horrek. "Gure aurrekoek bizitza osoa igaro zuten hemen lanean edota jolasean, eta berriz martxan jartzea oso berezia izan da, bihotzetik ateratako zerbait izan delako", dio Jonek. "Lorpen handia" izan da harentzat, are gehiago ondare gune horiek urrituz joan direlako azken hamarkadetan. Haren arabera, Gipuzkoan 31 errotari daude egun, eta duela mende eta erdi, berriz, 600 ziren. Azkoitian, Katuin errekaaren ondoan dagoen Egurbide errota da egun martxan dagoen bakarra, baina orbegozotarrak gogoratzen dira duela hamarkada batzuk haren inguruko baserri ugari zutela berea.

Transmisiorako bide izan nahian

Maiatzean ospatu zen Gipuzkoako Erroten Eguna, eta orduan, orbegozotarrek herritarrei ireki zizkieten Egurbideko errotak, haiek bertatik bertara ikus zituzaten makinaren historia eta funtzionamendua. Joni gustatuko litzaioke errotari probetxu handiagoa ateratzea; esaterako, jendeak bisitatzeko gunea izatea, baina ondare pribatua izanik, egoera "oso zailean" dagoela azaldu du hark: "Errota jendaurrean jartzeak segurtasun lan handiak egitea eskatzen du, eta gureztat hori ez da bideragarria. Laguntza handirik



ez dugu sumatzen zentzu horretan". Gainera, Egurbide monumentu multzoak 2008tik Eusko Jaurlaritzaren kultur ondasun izendapena duenetik, erakundeek bertan lanak egiteko "traba ugari" jartzen dizkietela salatu dute aita-semeek.

Oztopoak oztopo, familia jakitun da "altxorra" duela etxe ondoan, eta horrela zaintzen du, mimoz. Izan ere, errotara sartu bezain pronto ohartzen da bat museo txiki batean dagoela: mendeak dituen makinaria handiak hartzen du egurrezko aterpea, eta bere horretan jarraitzen dute pieza original guztiek, norbaitek palankari tira egin eta uraren indarrak haren barrunbean dagoen turturra biraka jartzeko prest. Beheko turturra ardatz baten bidez dago lotuta goikora, eta modu horretan hasten da goiko gurrupila ere biraka, zereala ehotzeko. "Asmakizun aparta da, duela ia zazpi mende izugarritzko aurrerapena ekarri zuen teknologia". Jendeak errota osoki uler dezan, gainera, mekanismo osoa azaltzen duen maketa egina du Jonek, haren semearen laguntzarekin. Betidanik izan du hark errota etxe ondoan, baina azaldu du duela urte batzuetara arte ez zuela haren gaineko ezagutzarik, eta aitarengandik zein osabarengandik jaso duela jakintza hori. "Haiek niri transmititu egin didate, eta errotari dagozkion pauso guztiak jarraitzen ditut nik".

Errotaren parean, berriz, lanbide horri lotutako zein harria lantzeko antzinako tresnak ere gordeak dituzte: bufardak, piketeak, mailuak, txoria... "Hemen utzi zituzten gure aurrekoek, eta espero dut nik ere hemen utziko ditudala, ondorengoek ere zaindu eta mantent ditzaten", adierazi du Jonek.

Familiak noizean behin jartzen du errota martxan, etxerako irina egiteko: "Batzuetan, semeak taloa egiteko eskatzen dit, eta orduan erabiltzen dugu errota, batez ere neguan", dio Jonek. Eta zera gaineratu du haren aitak: "Asko gozatzen dut halako gauzeekin, batez ere umeak inguruan badaude. Sasoi batean taloak nola egiten ziren erakusten diet haiei". Izan ere, biek ala biek azaldu dute "historia ezezaguna" dela Egurbiderena, eta, oro har, errotek gordetzen dutena. Egun funtziorik ez badute ere, horixe da senideek nahi dutena; herritarrek errotak zer izan diren jakitea. ■■■

Jon Orbegozo, errotaren kanpoaldean.

**"GAUEZ LAN EGIN,
ETA ETXEAREN
ATZEALDEAN GENUEN
ZULOAN EZKUTATZEN
GENUEN IRINA"**

**"ASMAKIZUN APARTA
DA, DUELA IA ZAZPI
MENDE IZUGARRIZKO
AUERRERAPENA EKARRI
ZUEN TEKNOLOGIA"**



Testua: Aiora Larrañaga Solaberrieta.
Argazkiak: Arnaitz Rubio Aprea.





NORBERAREN GORPUTZAZ HARRO LODIFOBIA JOMUGAN

Uda garaia iritsi da. Gizarteak ezartzen duen edertasun ereduak indarra hartzen du urte sasoi horretan, egiturazkoa den lodifobiaren eragina inoiz baino agerikoago bihurtuz. Lodifobiak nola eragiten duen ezagutzeko, eskualdeko hainbat herritarren testigantzak bildu ditu GUKAk. Horiek argi dute: "Ez dira kasu isolatuak, jende askok bizi ditu halakoak".

Martxoaren 4a Lodifobiaren Aurkako Eguna izendatu zuten osasungintzako hainbat profesionalak eta lodifobiaren aurkako aktibistek. Berez, Obesitatearen Aurkako Eguna bada ere, manifestuarekin salatu zuten edertasun ereduak eta horiek lortzeko dietaren kulturak gizartean "kaltea" eragiten dutela, eta gorputz masaren indizearen aitxakian, gorputz ereduak "patologizatu" egiten dela. Izan ere, adierazle horrek pertsonaren garaiera eta pisua hartzen ditu kontutan, hezur eta gihar masa aintzat hartu gabe: 19 eta 25 arteko Gorputz Masaren Indizea (GMI) dutenek izango lukete pisu egokia; 25-29,9 artekoek gehiegizko pisua; eta 30etik gorakoek obesitatea. Horra hor gorputz normala edo lodia izatearen arteko muga. Eustatek gaiak argitaratutako azken datuen arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan herritarren %12,5k du obesitatea eta %33,5k gehiegizko pisua; beraz, herritarren %46 bere pisutik gora legoke. Horren aurrean, lodifobiaren aurkako aktibistek osasuna zenbaki hutsetatik haratago doala aldarrikatzen dute.

Mugimendu feminista aspaldi hasi zen lodifobiak gizartean, eta bereziki emakumeengan, zuen eragina aztertzen, eta gaiak duen garrantzia azpimarratu du Miriam Garcia Etxeberria Orioko Pertzetik elkarte feministako kide eta Emakumeen Etxeko arduradunak. "Pertsonak lodiak izateagatik jasotzen duten bazterkeria eta gorrotoa da definizioz lodifobia, baina askoz haratago doala esango nuke. Zapalkuntza sistema bat da, kanon estetiko oso markatu batetik ateratzen den edonoren aurka egiten duena. Argal egotea osasunarekin lotzen da; kontrakoa, berriz, gaixo egotearekin. Pertsona lodia bazara, izaera alferrarekin eta utziarekin lotuko zaituzte, kontrolik ez duen pertsona batekin".

Hasiera batean pentsa daiteke lodifobiak pertsona lodiari "iseka egitea" duela oinarrian, baina hori baino askoz "sakonagoa" dela argi du Garciak: "Eraso zuzenez gain, beste modu askotara bizi dezake lodifobia pertsona batek. Osasungintzan, esaterako, edozein arazoren aurrean, oso ohikoa da medikuek jatorria loditasunean bilatzea, benetako arazoan sakondu gabe. Horrez gain, autozaintza agindua ez betetzeagatik epai moralak jasotzen dituzte, baina kirola eginez gero ere, begiradak, txutxu-mutxuak eta isekak agertzen dira. Bizitzako arlo guztietan dago lodifobia: lan eremuan, harreman sexual nahiz afektiboetan, kulturen... Lodia bazara, bereizkeriaz tratatuko zaituzte lan esparruetan, eta zer esanik ez ligatzeko orduan; pertsona lodiak merkatutik kanpo daude".

Gorputz eredu normatiboa izatearen presioa era batera edo bestera gizarte osoak jasaten duela azaldu du Emakumeen Etxeko arduradunak. "XXI. mendea irudiaren, mugikorraren, sare sozialen eta *selfi*aren garaia da, eta, testuinguru horretan, gorputz lodia gorputz okerra da. Baina pertsona argal batek ere sufrituko du, presio handia izango baitu argal jarraitzeko, gorputza mantentzeko, kirola egiteko. Beldur ikaragarria diogu pisua hartzeari, horrek argaltasun proiektuan porrot egin dugula esan nahi duelako. Dietaren kulturen bizi gara, eta horrek eragin ditzaizke elikadura nahasmenduak". Presio estetiko horrek emakumeei bereiziki eragiten diela uste du, horiek beren bizitzak itxuraren inguruan eraikitze sozialetan izan direlako. "Itxurak erabakitiko du gure estatus soziala, eta horrek gure egunerokoan eragin egingo digu. Adibidez, kanpoko begien arabera itxura zaintzen ez duen emakume batek egoera berean dagoen gizon batek baino zailtasun handiagoak izango ditu lan munduan". Garciaren arabera, argaltasunak "zoriontasuna" dakarrela ere saldu du sistemak. "Perfekzio hori, noski, ez da eskuragarria, baina bizi osoa pasatuko dugu hori eskuratu nahian. Azken finean, sistema patriarkalak argaltasuna bezalako promesa jasanezinak garatu ditu gure gorputzak kontrolatzeko".

Egoeraren aurrean, Garciak dio "oso beharrezkoa" dela lodifobiaz hitz egitea, baita aktibismoa ere. "Pertsona lodien aurkako diskriminazioa dagoela salatu egin behar da, eta gure errealitatearen analisi kritiko bat egin". Horrez gain, "diskurtso teorikoetatik irten eta gorputzera etortzea" ere oso beharrezkoa dela deritza. "Bizitako lodifobiaz hitz egin behar dugu, osatzeko eta elkar babesteko. Askotan, oso bakarrik sentitzen gara gai horren inguruan, inguruan ditugun lagunek ere esperientzia oso antzekoak bizi izan dituztela konturatzen garen arte. Esperientzia horiek elkarbanatzea oso sendagarria izan daiteke".

Eskatu gabeko aholkuak

Jon Alkain (Orio, 1998) eta Andoni Uranga (Orio, 1998) oriotarrak oso kontziente dira inguruan bizi duten lodifobiaz. Bi gazteek umorea erabiliz eman dituzte azalpenak, baina gaiak asko hausnartutakoak direla nabari da segituan. "Nik txikitatik izan dut handia nintzelako desberdina izatearen sentipena. Zenbat aldiz esan ote zieten medikuek gurasoei: 'Handiegia dator'". Lodia izatearen estigma horrek haurtzaroan eta nerabezaroan "markatu" egin zuen Alkain eta, azkenean, 17 urterekin, elikadura portaeraren nahasmendua izan zuen: sei hilabetetan 40 kilo



Jon Alkain eta Andoni Uranga. ARNAITZ RUBIO APREA

galdu zituen. "Hezurretan nengoen: 1,76 metro neurtzen nuen eta 64 kilo pisatu. Ikaragarria da, jendeak oso guapo eta eder nengoela esaten baitzidan, nahiz eta ondo ez egon". Horregatik, Alkainek argi du: "Gizarte honek onartzen zaitu itxura jakin bat baldin baduzu, baina edertasun eredu horretatik ateratzen baldin bazara, zaintzeko eta kirola egiteko esaten dizu etengabe, orain arte zaindu izan ez bazina bezala".

Gizarteko lelo horiek etengabe errepikatzen direla uste du Urangak ere, gizona izateari konnotazio edo esanahi "negatiboa" emanez. "Jendeak ohitura handia du lodi daudenei aholkuak emateko, bere osasunaren 'hobe beharrez' ari direla esanez, noski: 'on egingo dizu mendira ibiltzera joateak', 'jan itzazu karbohidrato gutxiago', 'fruta eta barazki gehiago izan behar ditu zure elikadurak', eta nola ez, 'kafearekin azukre beltza edo sakarina?'... Osasun fisikoa jartzen da aitzakia gisa, baina zer gertatzen da buruko osasunarekin?", galdetu du Urangak. "Akaso erretzen duenari etengabe esaten al zaio mendira joateko aire garbia arnastera, edo alkohola egunero edaten duenari errepikatzen al zaio ura edateko, alkohola gibelarentzat kaltegarria delako?".

Hala, bi gazteek uste dute presio sozial horrek "autoestimu arazoak eta norberaren auto pertzepzio zeharo okerra" dakartzala: "Jasaten duzun presioari aurre egiteko, desio duzun bezala argaltzen zarenean ere ez zara ondo ikusten, sekula ez da nahikoa, barru-barruan geratzen zaizulako urteetan errepikatu dizuten leloa". Hain zuzen ere, gizartearengandik jasaten den presioaz "oso gutxi hitz egiten" dela deritzo Urangak. "Norberak darama zama, inorekin partekatu gabe. Norbere gorputzaz lotsatuta bizi da jende asko; uste baino ohikoagoa da, gai-

"Pertsona lodien aurkako diskriminazioa dagoela salatu egin behar da"

"Garen bezala izatearen erruduntasun sentimenduak gizarteak sortu digu"

nera". Pasarte bat kontatu du anekdota gisa: "Kuadrillan inauteritako mozorroa erostera joan eta aukeraketa egitean, neurri estandarraren barruan dauden horiek normalean ez dute pentsatu ere egiten beraiei primeran geratzen zaien neurri hori lodiei ez zaiela kabituko. Mozorroa aukeratzen duten bitartean gizena atzean dago dardarka, sartuko al zaion pentsatzen". Konfiantzazko inguru batean, lagun artean egon arren, "lotsagatik" gertatzen zaiena oso gutxi azaleratzen dutela uste du oriotarrak: "Zaila da araututakotik kanpo zaudela aitortzea, sistema argalen neurrira egina baitago".

Zentzu horretan, Alkainen eta Urangaren ustez, lodifobia lantzeko lantegiak "oso baliagarriak" dira horrelako bizipenak edo antzekoak jende askok izan dituela jabetzeko; izan ere, haiek diotenez, ez dira kasu "islatuak", eta horiei kolektibo gisa egin behar zaie aurre. "Garen bezalakoa izateagatik ditugun errudun sentimenduak gizarteak sortu dizkigu, sistemak ezartzen dituen arauen eta ereduaren bidez. Gaiaz jendearekin hitz egitean, askok garrantzia kentzen diote, eta, beste batzuek, berriz, gizarteari kasurik ez egiteko esaten dizute, baina era berean, konturatu gabe, beraiek ere erreproduzitu egiten dituzte jarrera lodifobikoak".

Bi gazteek sentitu dute lodi izate hutsak batzuei "molestatu" egiten diela ere. "Pertsona lodi bat pasatzen denean, jendeak uste du hari buruzko iritzia emateko eskubidea duela, berriz ere loditasun hori osasunarentzat kaltegarria dela aitzakia hartuta, noski. Askotan gertatzen da parrandara atera eta kuadrillaren baten aurretik pasatzean 'gordo', 'potolo' edo horrelakoren bat deitzea ere". Argi dute ezauzgarri fisiko hori irain moduan erabiltzeak "pertsona lodiak estigmatizatu" egiten dituela. "Horrek eragin zuzena du pertsona horiek ezezagunen aurrean hartzen duten jarreraren, diren bezalakoa izateagatik baztertuak edo irainduak izateko beldurra sortzen dielako. Eta, berriro diogu: ez dira kasu islatuak, jende askok bizi ditu halakoak".

Aniztasunari balioa

Fama Thiam (Dakar, 1984) senegaldarra da, eta 12 urte zituenean utzi zuen jaioterria, Almerian (Espainia) bizi ziren gurasoekin elkartzeko. Europara iritsi zenean harridura eragin zion faktoreetako bat izan zen gizarteak pertsona lodiekiko zuen jarrera "ezkorra". Hala azaldu du: "Lodifobia arrazakeria bezala da. Zenbaitek esan dezakete gizartea ez dela arrazista, baina beltza denak etengabe sufritzen du. Gauza bera gertatzen da lodifobiarekin ere. Batzuei irudituko zaie lodia izateagatik ez dela inor baztertzen, baina gizena dagoenak badaki zer-nolako begiradak, komentarioak, jarrerak, bazterketak eta irainak pairatzen dituen". Hain zuzen ere, Thiamek uste du lodifobiarik ez dagoen herrialde batetik iritsita, "are nabarmenagoa" dela bazterketa. "Senegalen pertsona handiak ederrak direla sinesten du gizarteak, eta oso eroso sentitzen dira beren gorpuzkerarekin. Eredu publikoan, hainbat arlotan ikus daitezke emakume eta gizon handiak erreferente gisa: komunikabideetan, musikan, politikagintzan, enpresa munduan... Gorpuzkerak ez du baldintzatzen pertsona horrek lor dezakeen arrakasta, ez dagoelako horren gaineko aurreiritzirik, ezta gorputzaren



Fama Thiam. ARNAITZ RUBIO APREA

arabera eraikitako hierarkiarik ere". European, aldiz, pertsona lodiak "seinalatuta eta epaituta sentitzea" ohiko dela deritzo. "Has gaitezen kontatzen zenbat emakume edo gizon lodi dauden esena publikoan: oso gutxi. Kasualitatea al da? Ez". Thiamek uste du eremu publikoan "oso argi" ikusten dela pertsona lodien bazterketa. "Hemen loditasuna utzikeriarekin lotzen da, eta horregatik ez da eredu gisa aurkezten".

Pertsona lodiei egiten zaien presioari aurre egiteko, Thiamentzat garrantzitsua izan da bere jaioterriko errealitatea ezagutzea. "Ez dut gezurrik esango; gaztea nintzenean, institutuan sufritu nuen bazterketa beltza eta gizena izateagatik, eta nire seme-alabek ere bizi izan dituzte antzeko egoerak. Hala ere, beste erreferente batzuk izateak asko lagundu izan dit neure buruarengan sinesten, argi nuelako zer-nolako emakumea izan nahi nuen".

Aian bizi den senegaldarrak askotan "penaz" bizi ditu Euskal Herriko pertsona lodi askok txiki-txikitatik dituzten konplexuak. "Haurrei txikitatik errepikatzen zaie lodiak daudela, eta errepikatuz eta errepikatuz, kalte handia sortzen die autoestimuan, zerbait oker egin dutela pentsatzen baitute. Pertsona horiek markatuta bizi dira heldutuz direnean ere. Horregatik, benetako gizarte inklusiboa nahi baldin badugu, oso garrantzitsua da lodifobiaz jabetzea eta horri aurre egitea". Prozesu horretan, lodiak dauden pertsonak "diren bezalakoak izateagatik harro" sentitzea ezinbestekoa dela uste du Thiamek. "Gainontzekoek baztertu ez gaitzaten, geure buruari balioa eman behar diogu, gizarteak ezarri nahi dizkigun konplexu guztiak alde batera utziz". Berak, esaterako, ozen aldarrikatzen du ez dela ezkutatzen. "Ez ditut arropa zabalak janzten arretarik ez emateko. Arropa estuak janzten ditut, nire



Ana Bringas.

ARNAITZ RUBIO APREA

gorputzaz harro nagoelako eta ez dudala ezkutatu beharrik uste dudalako". Izan ere, Thiamen iritiz, pertsona guztiak molde berekoak balira, "oso aspergarria" izango litzateke gizartea. "Aniztasunari zentzu guztietan eman behar diogu balioa".

Gorputzarekin adiskidetzeari helburu

Antzekoa da Ana Bringas (Zumaia, 1984) zumaia-rraren testigantza ere. "Handia" izateagatik begirada askoren jomuga izan dela sentitu izan du beti. "Ez naiz sekula estandarretan sartu eta zenbait unetan horregatik baztertua izan naizela uste dut, baina nire izateko moduarekin horri aurre egiten saiatu naiz beti. Neure buruarekiko izan dudana hautematean ere kalte egin didate jendearen iritziek, komentarioek edo begiradek", aitortu du. Bringasi irudiaren eta modaren mundua gustatu izan zaio betidanik, baina badaki arlo horretan ez duela lan gehiago egin bere gorpuzkeragatik. "Saiatu banaiz ere, arropa kate handiek sekula ez naute kontratatatu beren dendetan saltzaile lanetan aritzeko, nahiz eta langile bila ibili eta nik lan hori betetzeko eskatzen zituzten baldintza guztiak bete".

Eredu horri aurre egin nahian, Bringasek arropa denda bat zabaldu zuen Zumaian. "Emakume askori ez zaie arropa erostera joatea gustatzen ohiko dendetan beren neurriko arropa ez dutelako aurkitzen, eta hori oso frustragarria da". Modaren industriak egiten duen presio hori bere azalean bizi izan du zumaia-rrak: "Beti gustatu izan zait arroparen bidez nire nortasuna adieraztea, eta oztopo asko izan ditut horretarako, nire neurriko arroparik ez nuelako aurkitzen ohiko dendetan. Garai batean gizonezkoen prakak ere erosi behar izaten nituen. Takoidun zapatak janzten nituen, gizonezkoen prakekin".

Jakin badaki, ordea, berea ez dela kasu isolatua, neska gazte eta emakume askok sufritzen dutela horregatik. "Nire dendara etortzen zen 12-13 urteko neska bat bere amarekin. Gogoan dut lehen aldiz lotsatuta etorri zela. Amak esan zidan praka estu batzuk nahi zituela, bere lagunek moda kate handietan erosten zituztenak bezalakoak. Neska ederra zen, baina konplexu handia zuen bere gorpuzkerarekin. Oso pozik jarri zen galtza batzuk sartu zitzaizkiolako, eta amak aitortu zidan ez zuela sekula horren zoriontsu ikusi. Ordutik dendara irribarre-
tsu etorri izan zen; bere buruarekiko segurtasun handiagoarekin begiratzen zituen arropak eta lasaitasunez aukeratzen zuen nahi zuena". Arazo hori bizi izan ez duenari "garrantzirik gabeko anekdota" irudituko zaiola uste duen arren, arropa erosi nahi den bakoitzean "araututakotik at sentitzea oso gogorra" dela uste du Bringasek. "Izan ere, horrek uneoro sentiarazten dizu ez zarela izan behar zenukeen bezalakoa".

Lodifobia "esan edo hitz soila baino askoz sakonagoa" dela uste du. "Haurra zarenetik pixkanaka-pixkanaka bide desberdinetatik

buruan sartzen dizkizuten ideiak dira, gizartean lodia den guztiaren aurka errotuta dauden us-teak". Bringasen iritziz, lodia izateagatik sortzen den bazterketa ez da arlo informalean bakarrik ematen, osasungintzan ere gertatzen dela de-ritzo. "Mediku bakoitzaren arabera da, baina askok edozer duzula ere, dena beti pisua-rekin erlazionatzen dute. Nik azaleko arazoak izan ditut, eta lehen aldiz artatu ninduen der-matologoak esan zidan elikadura zela nire ara-zo nagusia. Dietan hastea agindu zidan, garbi janda pasatuko zitzaidala eta. Oso oker zebilen, denbora tarte hartan okertu besterik ez baitzi-tzaidan egin arazoa. Espezialistaz aldatzeko eskatu nuen, bigarren iritzi bat izateko, eta, azkenean, jakin nuen nire azaleko arazoak ez zuela zerikusirik elikadurarekin".

Zumaiarrak aitortu du bera berez dela "handia eta zabala", baina ez dela beti egoera berean egon, "bakoitzak bizi duen une pertsonalak eragin zuzena" duelako gorputzean. "Garai batzuetan besteetan baino argalago egon naiz. Orain, adibidez, bigarren semea izan berri dut, eta pisua hartuta nago. Jakin badakit erosoago sentituko nintzatekeela taila eta erdi jaitisiko banu, baina hala eginda ere, gizartearentzat lodi egoten jarraituko nuke". Horregatik, bere buruari ez dio eskatzen gorputz eredu norma-tiboaren barruan sartzea, uste duelako "norbe-rak erabaki" behar duela nola sentitzen den gustura, "gainontzekoen iritziei jaramonik egin gabe". Bringasen iritziz, gakoa "pertsonak diren bezala onartzea" da. "Bata bestearengandik desberdinak garela naturaltasunez hartu behar dugu, denak molde desberdinekoak garelako. Ezaugarri horiek ez genituzke irain bezala era-bili behar. Harrigarria da haurrak bata besteari 'potolo', 'gordo' eta horrelakoak deitzen zeinen goiz hasten diren ikustea". Arlo horretan, au-toestimu eta autozaintza "lan handia" egin behar dela uste du, "astakeriarik ez egiteko". Zehaz-tera jo du: "Gizen egotea osasuntsua ez dela sinetsita egongo dira asko, baina argal egoteko buruko gaixotasunak izan dituztenak ere asko dira. Nire ama zenak esaten zidan gorputzari eskerrak eman behar dizkiogula, horri esker bizi garelako. Beraz, zaindu eta maite dezagun gure gorputza, eta adiskidetu gaitezen berarekin, bizitza bizitzeko da eta". ■



Demokrazia: ilusioa ala preziatua?



LANDER ALBIZURI

Demokrazia da gobernu sistema eskasena, beste guztiak kontuan izan gabe", esan ohi zuen Churchillek. Bada, demokraziak gobernu sistema moduan tiraniak galarazteko duen berezko bertutea nabarmena izanda ere, guztiok pairatzen ditugun gabezia objektiboak ere baditu, estatu zein herri mailan.

Pertsona talde bateko norbanako bakoitzaren lehentasunak komunitateko erabaki orokor batean bihurtzeko balio duen edozein mekanismori deritzo demokrazia. Era horretara, estatua gizarte guztiaren adierazpen politikoan bihurtzen da. Halaber, hainbat demokrazia mota dauden arren, Euskal Autonomia Erkidegoan hauteskunde libreen eta lehiatuen eskutik aukeratutako ordezkarien bidez hartzen dira erabaki politikoak eta sortzen arau juridikoak.

Interes orokorretik aldentzen den ordezkari politikoaren agintea mozteko gaitasunaz gain, batik bat, gizartean eragiteko edo bizirauteko bitarteko gutxien duten pertsonak beste gizabanakok bezainbeste zeresan erabakitzaile edukitzea da demokraziaren aparteko dohaina. Beste hitz batzuetan esanda: demokrazian ez dira norbere interes pertsonal materialak soilik gailentzen, bakoitzak horiek erdiesteko dituen baliabideen neurrian (supermerkatu batean gertatuko litzatekeen moduan), baizik eta norbera bizi den gizartearen eredu jakin baten alde bozkatzeko da. Guztien berdintasunez legeak eratzean, guztien askatasunez legeen izaera erabakitzean.

Argira urbiltze orok sortzen du bere itzala, ordea. Arrowren paradoxa da horietako bat, Nobel saridun ekonomialari hark 1950eko hamarkadan garatu zuena. Hark, funtsean, matematikoki frogatu zuen ezinezkoa dela hauteskunde demokratiko bateko boto guztiei eragin berbera esleitzen dien hauteskunde sistema izatea. Hots, boto kopuru berberarekin ondorio politikoak ezberdinak izango dira zenbatze eta erabakitze sistemen arabera. Soilik botoen zenbatekoa hartuko balute kontutan, Trumpek ez zukeen presidentzia lortuko 2016an, Hillary Clintonek 2.868.685 boto gehiago eskuratu baitzituen guztira.

Ezjakintasun arrazionalaren kontzeptuari jarraikiz, jendeak uste badu bere botoak ez duela axola, informatzeko interesa apalduko da, gaur egungo gizarte jendetsuetan gertatzen den modura, norbanakoaren erantzukizun politikoa biztanleen artean diluituz. Demagogoen propaganda eta manipulazioa ereiteko aurreiritzietan, axolagabetasunean eta ezagutza osatugabearen oinarrituta dagoena baino lursail hoberik ez dago.


Demokraziaren defentsa sendoena bere gabeziez ohartzea da, hura baita etsaiek erasoko duten eremu zehatza. Alegia, arerioaren urratsak aurreikusten dituenak bere eskuetan du guda erdia. ■

**JENDEAK USTE BADU
BERE BOTOAK EZ DUELA
AXOLA, INFORMATZEKO
INTERESA APALDUKO DA**

NON DAGO ZAKELMARI?



Ekaineko Maxixatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkatututa zegoen asmatu behar zen: 23. orrialdean zegoen ezkatututa. Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Ane Agirre** bazkideari egokitu zaio, eta bere senide batek jaso du Herrixen merkatarik elkartek emandako **50 euroko erosketa bonua**. Abuztuan, Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna uztailaren 20a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo erredakzioa@maxixatzen.eus helbide elektronikora.



Komertzio
txiki
herrixen
esentziko



"Marrazteak zentzua ematen dio nire bizitzari"

SABRINA ROMERO MARRAZKILARIA

Sabrina Romero marrazkilaria da, eta batez ere ilustrazioan aritzen da. Umetan zaletu zen marraztera; 5 urte zituela hasi zen horretan, Xanti Oria irakasle harturik. Gerora, herrian zenbait irakasle izan zituen, eta Arte Ederrak ikasi zuen. Azken urteetan, hainbat proiektutan parte hartu du marrazkilaria moduan.

Testua eta argazkiak: **Naia Arrizabalaga**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Sabrina Romerok (Azkoitia, 1977) umetan izan zuen lehen hartu-emana marrazkigintzarekin: "Txikitan zaletu nintzen; gurasoei esaten nien marrazten ikasi nahi nuela". Bere nahia betetzeko asmoz, Xanti Oria irakaslearengana eraman zuten gurasoek, eta hark hasieran "gazteegia" zela esan bazion ere, eskola haietatik abiatuta ibilbide oparoa osatu du azkoitiarrak. Orduz geroztik, zenbait irakasle izan ditu herrian bertan; Xebas Larrañaga, esaterako. Arte Ederrak unibertsitate ikasketak ere egin zituen.

Ikasten soilik ez, Romero irakasle lanetan ere aritutakoa da haurrekin: "Azkenengo esperientzia Hauspo izenekoa izan da, haurrekin sormen tailer desberdinak egin ditut Azkoitian". Horrez gain, senarra eta biak Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarain ere aritu ziren bi urtez lanean, haurrei eskulan tailerrak ematen. Hala ere, irakasle lanak "tartekako lanak" izaten dira, azkoitiarraren hitzetan.

Marrazkigintzak Romeroren bizitzan pisu handia izan badu ere, bere helburuak urteen poderioz aldatzen joan dira: "Ikasketak amaitu nituenean, nahi batzuk nituen, eta urteak igaro ahala, aldatu egin dira horiek; batzuk gauzatu ditut, eta besteak, ez". Ez da lorpen handien bila aritu azkoitiarra, baina marrazkigintzak "bizitzari zentzua" emateaz gain, berari "indarra eta bizipoza" ere ematen dizkiola argi dauka.

Dena den, marrazkigintzan aritzea "ez da erraza", haren arabera: "Asko mugitu behar duzu gizartean eragile gisan aritu nahi baldin baduzu". Gainera, "gauzak egiteko modu eta pertsonalitate jakin bat" izatea beharrezkotzat jo ditu Romerok. Egin duen ibilbidean, ordea, hori lortzea zaila egin zaiola azpimarratu du: "Herrian bizitza eginda duzunean, zaila da mugitzen hastea". Hala ere, munduan zehar mugituz gero, batera eta bestera ibiliz gero, alternatibak ugariagoak izaten dira, haren ustez.

Ezinbesteko ekintza

Egunerokotasunean, marraztea "ezinbesteko ekintza" da Romerorentzat: "Beti darabilkit buruan orri zuri bat betetzeko nahia". Arlo pertsonalean ere, pisu handia du arte espresio horrek. "Neure burua ezagutzeko eta munduarekin harremantzeko bide bat da marraztea", azaldu du. Hala ere, etenaldiak egin beharra izaten duela azpimarratu du: "Denboraldiak egiten ditut ezer marraztu gabe, eta etenaldi horietan neure buruarekin deskonektatu egiten dudala ohartzen naiz". Proiekturen bat eskuetan duenean, ordea, "buru-belarri" aritzen da horretan.

Romeroren arabera, inspiratzeko iturri ugari daude inguruan, uneoro, "beti dago arreta pizten duen zerbait". Marrazteko orduan, ezinbestekoak izaten ditu hark errotuladoreak, tintak, arkatzak, paper mota desberdinak zein





akwarelak, baina azkoitiarrarentzat musika ere "ezinbestekoa" izaten da sortzerakoan. Bide horretan, erreferenteek pisu handia dutela azpimarratu du: "Lanak geuk egindakoak badira ere, lanak erreferentzien bidez osatzen dira; puzzleak dira, hein batean". Eta erreferente gehienak "ingurukoak" dituela esan du Romerok.

Ilustrazioan aritzen da gehienbat, baina kartelgintza zein collageak ere lantzen ditu. Kartelgintzak, esaterako, betidanik "asko erakarri" izan duela esan du, eta esparru horrek "plazer handia" eman izan dio sortzaileri. Kartelak osatzerakoan, egileak buruan duen ideia islatzea izaten da gakoa, eta horrez gain, hark "zehatza" izaten jakin egin behar dela azpimarratu du. Teknikari dagokionez, marrazkietatik abiatu ohi da kartelak egiteko garaian, eta collageaz zein Photoshopaz ere baliatu izan da.

Proiektuetan buru-belarri

Azken urteetan, proiektu askotan aritu da Romero: "Batzuetan neu joan izan naiz proiektu jakin batzuen bila, eta beste batzuk, berriz, ingurukoen ahoetatik iritsi zaizkit". Proiektuetan behar bezala murgiltzeko, azkoitiarrak argi du "ziur egotea" eta "gogoz hartzea" funtsezko baldintzak direla.

Marrazkilariak Koldo Mitxelena kulturunearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka bat jaso zuen 2009an, eta hainbat musikariren kolaborazioarekin gauzatu ahal izan zuen erronkatzat zuen proiektua: "Animazio lan bat zen, zeinetan marrazkiak bere horretan mantentzen ziren eta soinu banda aldatzen joaten zen". 2022an, berriz, Azpeitiko Udalaren eta Kulturaz kooperatibaren Sormen Beka jaso zuen. Pertsonalki, lan horrek "asko" eman diola azpimarratu du Romerok. Izan ere, urtebetean buru-belarri aritu da proiektu horrekin lanean, Azpeitiko Dinamo sormen gunean. Hala ere, ez da hura Dinamoan landu duen proiektu bakarra; *Gure Marrazki* proiektuan zein Txakur Gorria

Sabrina Romero

- **Adina:** 46 urte.
- **Ikasketak:** Arte Ederrak
- **Lanbidea:** Marrazkilaria
- **Marrazkilaria ez banintz...** argazkilaria izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** pasiera bat ematea gustatzen zait.



taldearen tailer batean ere parte hartu zuen azkoitiarrak, besteak beste. Azken lana, berriz, *DA!* liburuan egindako kolaborazioa izan da, irudi baten bitartez.

Gaur egun, ez du proiektu handirik eskuen artean, baina etenaldi bat egin ostean, berriro ere marrazten ari da. Etorkizunera begira, bestalde, argi du zer egin nahiko lukeen: "Haurrentzako ilustrazioekin harremana duen liburuxka baten ale batzuk argitaratzea gustatuko litzaidake". Aspaldi, alabarentzat zenbait ipuin egin zituen, eta lan horiek argitara eramatea ere gustatuko litzaioke artistari. Halaber, ikasten jarraitzea nahi du, eta tailerrak ematea ere bai.

Herrian artista ugari

Herriko artistei erreparatuz gero, Romeroren arabera, "asko" dira marrazkigintzan lanean aritzen direnak; horietako asko, "isilean". Gorka Larrañaga eta Udane Juaristi aipatu ditu hark, horiek beren lanean "sinetsita" egindako lanak herrira ateratzeko "ahalmena" dutela esanda. Zentzu horretan, herriko artisten "ahalmena" azpimarratu du hark, eta esan du gustatuko litzaiokeela artista gehiagok bide beretik jotzea. Bestalde, herriko artistek elkarren lanen berri baldin badute ere, "harreman handirik ez" dutela aitortu du, eta gainera, "errekonozimendu falta" ere sumatzen duela dio marrazkilariak.

Matadeixen sorturiko Urssy Baterna taldea "oraindik bizirik" dagoela ere azaldu du Romerok. Leire Arenasek, Alots Arregik eta Romerok berak osatzen dute Matadeiko ekintzak iragartzeko kartelgintzara bideratutako taldea, egitasmoaren "sostengu" izateko asmoz. ■

GARAJE
AXIRI

**MARKA GUZTIETAKO AUTOAK
KONPONTZEN DITUGU**

Astelehenetik ostiralera:
08:30-12:30 / 14:30-19:00
Larunbatean itxita

Classic

San Joan, Axiri 13
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62


OSKAR BERNAL GOMEZ
tailleraxiri@gmail.com






IKUSI-MAKUSI

Zer ikusten du piratak bere katalogatik?
Aukeratu irudi ona.



Zeeer?!

Zer ari da pentsatzen balea? Eman marrazkitza bakoitzari dagokion hizkia eta asmatuko duzu. Horretarako, erabili beheko hizki-marrazki hiztegia.



ENGAINAGARRIAK

Txanpon eder hau gaiko altxorretik atera da. Ondoko puskei erreparatu eta esan zeintzuk diren onak eta zeintzuk imitazio txar batekoak.





Bost itsaslapur
hauek sekulako
altxorra dute
zain, baina bik
besterik ez dute
bidea aurkituko.
Nortzuk?

ALTxo- rraren bila

SUDOKUA

	U		H	N
N		H		U
		Z	U	
	N		H	Z
	H			Z
Z	N		I	

Loroek hiltun
fama dute,
ezta? Bete
itzazu hutsuneak
HILTUN hitza
osatzan duten
hizkiak erabiliz
(H, I, Z, T, U eta
N). Kontuan hartu
hizki bakoitzak
behin agertu
behar duela
zutabe, lerro eta
anua bakoitzeko.



Baiez Hamabi!

Horra hemen bi itsaslapur. Bata bestearen
ispilu direla ematen du baina ez dira
erabat berdinak. Aurkitu bien
arteko aldeak. 12 dira guztira.

Bikotea

Loro hauen artetik
bat bi aldiz ageri
da. Zein da?

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

"Albistegiek erre egin ninduten, baina irratiak ez"

JOSU ODRIOZOLA 'XATOKEN MOURA' IRRATSAIOAREN AURKEZLEA

Gustuko eta neurriko tokia aurkitu zuen Josu Odrizolak irratian, espero ez zuen esparru batean. Duela bi urte, irratiko lana albo batera uztea eta beste bide batzuk jorratzea erabaki zuen, baina irratigintzara itzuli zen duela hilabete batzuk, hobby gisara bada ere, 'Xatoken Moura' umore saioarekin.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Mailo Oiarzabal eta utzitakoak**.

Irratiarekin ez zuen ia harremanik Josu Odrizolak (Azkoitia, 1996) Mondragon Unibertsitatean Ikus-entzunezko ikasketak egiten hasi zenean, baina praktikaldi batek dena aldatu zuen. Euskadi Irratian aurrena eta Naiz Irratian gero, irratigintzan urratu zuen bidea lanean hasi zenean, nahiz eta egun beste lanbide batean dabilen. Hala ere, ez du baztertzeko komunikazioaren mundura itzultzea. Bien bitartean, harra baretzeko, *Xatoken Moura* saioa egiten du Naizen.

Zer ibilbide egin duzu irratigintzan?

Unibertsitatean ikasten ari nintzela, artean ez neukan oso argi nondik jo. Kamerak, grabatzea... gustatzen zitzaizkidan; eta soinuaren mundua, asko. Praktikak aukeratzeko unea iritsi zen, eta ez nekien non egin nahi nituen. Aukeretako bat zen EITBn bekadun izateko hautaketa proba egitea; izena eman nuen, proba egin, eta uste izan gabe, Euskadi Irratian hartu ninduten. Nirekin harremanetan jarri zirenean, galdetu zidaten ea zertan egin nahiko nukeen lan, eta ez neukan arrastorik; beraiek esandako lekuan jartzeko eta probatuko nuela erantzun nien. Horrela, asteburuetak albistegietan hasi nintzen lanean. Gustatu zitzaidan esperientzia. Batez ere, irratia mundua asko gustatu zitzaidan, nahiz

eta ordura arte ez nuen asko jarraitzen.

Albistegietan bekadun epea osatutakoan, han super beka esaten ziotena eskaini zidaten; bekadun lanaren luzapen bat zen, beste hiru hilabetez, uda osoan, lan egiteko. Albistegiez gain, Itziar Alduntzinekin batera saio bat egin nuen, *Blai* izeneko. Hantxe izan nuen irrati eta lana probatzeko aukera. Ikasketen hirugarren urtean egiten genituen praktikak. Laugarrenean, ikastera bueltatzea tokatu zitzaidan, baina zortea izan nuen, eta ikasketak amaitu nituenean, berriro deitu zidaten.

Euskadi Irratitik?

Bai. Ordezkapen bat bestearen atzetik kateatuta, guztira hiru urte egin nituen han lanean, batez ere albistegietan. Ordezkapenak beti izaten ziren oporraldietan eta, eta neure buruari esaten nion beste zerbait behar nuela, egonkortasun pixka bat gehiago. Sare sozialetan ikusi nuen Naiz Irratia martxan jartzekoak zirela eta langileak behar zituztela, frogetara aurkeztu nintzen eta hartu egin ninduten; 2019ko bukaera aldean izan zen. Urte eta erdi egin nituen Naizen.

Zer saiotan egin zenuen lan Naizen?

Albistegietan, nagusiki. Irrati haren hastapenak ziren eta saio zehatz gutxi genituen. Horietako bat zen *Informazioaren Haria*, eta hor aritzen nintzen ni. Goizetan egiten nuen, Amaia Zurutuzarekin



eta Ainara Rodriguezekin. 2020ko urtarriletik 2021eko maiatzera aritu nintzen saio hori egiten. Han lanean hasi eta justu bi hilabetera, pandemia etorri zen: telelana, etxetik, nahiko ordutegi eta baldintza aldrebesak... Kazetaritzarekin erre egin nintzen, nolabait.

Pandemia betean lan egitea tokatu zitzaidan, eta nahiko zaila izan zen. Etxetik egiten nuen lan, 04:00etatik 12:00etara; etxeko denak nazkatu nituen, goizeko zazpian hizketan hasten nintzen. Neuretzat ere gogorra izan zen. Bideo-dei batzuk kenduta, harreman guztiak telefono bidezkoak ziren. Lankide asko ez nituen ezagutzen; esaterako, ia urtebete neraman lankide batekin lanean, baina ez nion aurpegiarik jartzen. Zaila zen. Gainera, aktualitateak erre egin ninduen. 2021eko maiatzean utzi nuen Naizeko lana, aktualitatearekin erreta. Zaila zen momentu hartan kazetaritza egitea, eta horrek erre egin ninduen. Jauzi bat ematea erabaki nuen. Gogoan dut amari esaten niola berdin zitzaidala zer egingo nuen ondoren, baina lan hura utzi beharra neukala, puska baterako behintzat.

Zer lan egiten duzu orain?

Mendaroko tailer batean nabil, piezen injekzioa egiten dugu. Azkoitiko lagun baten bitartez hasi nintzen, eta urte eta erdi daramat han. Deskonektatzea errazagoa da, zortzi ordu lan egin

eta ahaztea. Ez dut baztertzen etorkizunean ikus-entzunezkoekin zerikusia duen beste zerbait probatzea, baina horrelako zerbait behar nuen orain, deskonektatzeko.

Hala ere, *Xatoken Moura* izeneko irratsaioa egiten duzu orain Naiz irratiari, Ion Garate lankide ohiarekin. Zer da, irratiaren harra elikatze modu bat?

Horixe bera, bai. Hobby bat da niretzat. Izan ere, albistegiek erre egin ninduten, baina irratiak ez; irrati gustura egiten dut. Ion Garate ikaskidea izan nuen, lankide ere bai Naizen, eta ondoren ere tratu handia mantendu dugu. Joan den urteko irailean egin zidan proposamena: "Hi, *Wazemanken* moduko zerbait egin nahi diat, baina irratiarako"; hitz horiexekin esan zidan. Momentu hartan nahiko airean zeukan asmoa, baina animatuko al nintzen galdetu zidan; zeozer egiteko gogoz harrapatu ninduen, eta baietz esan nion. Ideia garatu genuen, forma ematen joan ginen, eta bi astean behin ordubeteko programa bat egiteko proposamena osatu genuen. *Xatoken Moura* izena aukeratu genuen, ikaskide oñatiar umoretsu bati entzuna genion esamoldea hartuta. "Datorren bezala" da, oñatiarrez esanda; aipatu dudan ikaskide horren futboloko taldearen izena ere bada; berak esaten zuen baloia jotzen zutela zetorren bezala, eta horrela entzun genuen guk lehen aldiz.

Saioa irratan eman aurretik grabatuta izaten al duzue?

Bai, ez dugu zuzenean egiten. Egun batean gelditzen gara grabatzeko, Naizen eta *Gararen* Donostiako estudioetan, eta hiru ordu-hiru ordu eta erdi behar izaten ditugu grabazioa osatzeko; izan ere, kostatu egiten zaigu grabatzea: esketxak grabatzerakoan barrez hasi eta errepikatu egin behar, elkarrizketatu bat izaten dugu saioro eta horrek ere zati handi bat hartzen digu...

Aurtengoa proba bat izan da; lau saio egin ditugu, eta bosgarrenarekin itxiko dugu denboraldia. Berak [Garate], *Xatoken Mouranen* aritzeaz gain, kirol informazioan egiten du lan Naizen, eta nik ere neure lana daukat. Hasierako saioek balio izan digute konturatzeko, bi astez behin zerbait egin nahi baduzu, zerbait laburragoa behar duela izan. Neurtzen txarrak gara, ordubetetik pasatzen gara beti, eta gero, mozten ibili behar.

"Datorren bezala" izena bai, baina saioa egiteak lanketa gehiago eskatuko dizue, ezta? Nola egiten duzue?

Badauka inprobisaziorako tarte bat. Saio bakoitzak sei atal edo zati izaten ditu. Sarrera baten ondoren, beti dator esketx bat, bioi okurritzen zaigun artistakeriren bat. Ni ez, baina Ion oso ona da imitatzen; orduan, berak hartzen du umorezko rola, eta nik formalagoa. Esketx horren ondoren, elkarrizketaren tarte etortzen da. Saiatu gara pertsonaia ezagunak gonbidatu beharrean, geure inguruan ezagutzen ditugun pertsonaia xelebreak gonbidatzen.

Xelebreak, zer zentzutan?

Guk ere xelebretzat daukagu geure burua. Lehen gonbidatua ikaskide bat izan zen, bigarrena lankide bat, hirugarrena haren kuadrillako bat, laugarrena nire kuadrillako bat... Geuk ezagutzen ditugunak, eta jokoa emango dutela badakigunak. Gonbidatuaren elkarrizketaren ondoren, berriz, fikziozko elkarrizketaren tarte etortzen da; Ionek elkarrizketatuaren rola jokatzen du, eta nik elkarrizketatzailearena; galdera asko ez dizkiot aurretik erakusten, inprobisatu behar izaten du. Albistegi zoroa da saioaren beste atala, Naizeko lankideen parodietan oinarrituta. Saioaren

Auto lasterketen "lilura"

Irratiarekiko ez bezala, "ume-umetatik" datorkio Odriozolari autoekiko eta auto lasterketekiko lilura, "nolatan" ez badaki ere: "Etxean ez dira batere zaleak izan. Aitari sekulako errespetua ematen diote, amari beldurra... Akordatzen naiz 8 urte neuzkala, Azkoitian lehenengo rallya, eta kotxeak ikusi nituen ordurako plazara joan nintzela".

Zaletasunetik lasterketetan parte hartzeko bidea ere jorratu du azken urteetan. *Speaker* lanak egitetik lasterketak auto barrutik, kopilotu lanetan, bizitzeko pausoa ere emana du, eta bi jarduerak uztartzen ditu. Iraitz Olariaga herrikideak eman zion gidari laguntzaile aritzeko lehen "aukera". Aurten, Ormaiztegi (Gipuzkoa) Ugaitz Gorostidirekin hasi da kopilotu, eta Pirelli Kopa ari dira lehiatzen, "serio samar". Rallyak zein ralliesprintak, bietakoak egiteko aukera eskaintzen die kopa horrek; sanferminetan dute hurrengo zita, Errioxan (Espainia). Baina herriko Errebueltie eskuderiak Lazkaoko (Gipuzkoa) Ikullu Racing-ekin antolatzen duen Goilurrak Rallyan beste azkoitiar batekin aritu zen, Mikel Madinabeitiarekin. "Ez genuen zorterik izan.

Lasterketa aurretik autoa egiaztatuta, dena ondo zegoela eta aurrera. Eta rallyko lehen zatiaren irteerara bidean gindoazela, puskatu egin zitzaigun autoa. Horrelakoak gertatzen dira mundu honetan. Beraz, ikusten eta antolaketari laguntzen pasatu genuen asteburua", kontatu du Odriozolak. Pilotu "probatzea" ere gustatuko litzaiokeela aitortu du azkoitiarrak, "baina mundu honetan agintzen duena dirua da", dio, bere nahia egi bihurtzea urruti ikusten duela adierazteko.





**"NAHIKO LOTSATUTA HASI GINEN,
EZ GINEN AUSARTZEN JENDEARI
SAIO BERRIA GENUELA ESATEN"**

**"EZ DUT BAZTERTZEN IKUS-
ENTZUNEZKOEKIN ZERIKUSIA DUEN
BESTE ZERBAIT PROBATZEA"**

**"YOUTUBEN EDO TIKTOKEN EDUKIAK
GERO ETA LABURRAGOAK DIRA, ETA
HORI DA JOERA GAZTEEN ARTEAN"**

gidoiak bien artean idazten ditugu; elkarrizketatua gonbidatzen duenak lan pixka bat gehiago izaten du, saiatzzen baikara galderak gonbidatua ezagutzen duenak presta ditzan.

Zer erantzun jaso duzue entzuleen partetik?

Biok ere nahiko lotsatuta hasi ginen, ez ginen ausartzen jendeari esaten saio berria genuela, entzuteko, eta zer iruditzen zitzaien esateko. Baina, pixkanaka... Tailerreko lankide batek esan zidan, "hi, saio hau entzun diat, eta hire kristoren antza zeukak". Neu nintzela, eta ea zer irudititu zitzaion galdetu nion, eta nahiko entretenigarria zela erantzun zidan. Geu oso eroso sentitu garela esan dezaket. Nire kasuan, erregistro oso-oso formal eta mugatu batera ohituta nengoen, eta honek beste aukera bat eman dit.

Dena podcast den honetan, non kokatzen da irratigintza konbentzionala?

Zaila da. Nik neuk ere, kontsumitzaile gisa, podcastak entzuten ditut erabat. Akaso Euskadi Irratiaren 06:00etako albistegia entzungo dut, zer dagoen berri jakiteko; eta gauean, ohera joan aurretik, *Gaur Egun* ikusiko dut. Hortik aurrera nik, irratia konbentzionala... *Hiru Erregeen Mahaia* zeozer, udan *Arratsean* saioa inoiz, baina bestela, irratia konbentzionala, batere ez. Izatekotan, edukiren bat eman dutela badakit eta zuzenean entzuterik izan ez badut, podcast bidez entzuten dut; aurrekoan, esaterako, Martxelo Otamendiri Euskadi Irratian egin zioten elkarrizketa tailerrean entzun nuen gauean.

Gazteen artean joera orokorra hori dela esango al zenuke?

Erabat, esango nuke. Irratian ibiltzen nintzenean, laneko kontuak aipatu eta ingurukoek "a, hori egiten duzue?" galdetzen zidanean, arraroa egiten zitzaidan; baina gero konturatzen nintzen neuk ere ez nekiela ezer irratiaz, lanean hasi nintzen arte. *Hiru Erregeen Mahaia* jarraitzen genuen guk irratian, futbola; neu ez naiz batere futbolzalea, baina kuadrillakoak bai, eta horrelaxe. Eta ez pentsa podcastak ere gazte-gazteen artean asko entzuten direnik. Twitch-eko *streaming*-ak eta Youtubeko *influencer*-ak bai, baina gazteak ez ditut ikusten ordubeteko podcastak entzuten. Youtuben edo TikTok-en eduki gero eta laburragoak daude bogan, eta hori da joera gazteen artean. Kezka handia sortzen dit horrek, batez ere informazioari dagokionez. Teletipo asko ere laster ChatGPT horrek interpretatuko dituela eta kazetaritza desagertu egingo zela zioen aurrekoan lankide ohi batek. ■■■

Gozamena



MAITE LOPEZ

Noiz hasi zen zure bizitza oporretan bakarrik eskuragarri izaten?", aspaldion burutik kendu ezindako galdera. Sarri, ebidentziak errutinaren errezel astunak estaltzen ditu. Egunerokotasunaren pisua hain alimalekoa denez, ez dugu opakutasunak ezkutatzeko duen izpirik ikusten, harik eta beste norbaitek estalkia zakarki erauzten digun arte. Kontu horiek, hain justu ere, ez baitira gozo egiten, bortizki baizik.

Hala gertatu zitzaidan neuri Azahara Alonsoren *Gozo* liburuari hasiera ematen dion galdera horixe irakurri nuenean. Galdekizunak liburuak bezainbeste harrapatu ninduen. Alegia, geure bizitza aisialdi labor eta oporraldi ez oso luzeetara soilik mugatzen dela aspalditik susmatu arren, beste baten batek aieru bera izan duela jakiteak errezelo oro ziurtatzen du.

Denboraren berreskuratzeaz dihardu batik bat Alonsok. Lanik egin behar izan gabe bizitzeko asmoz egiten du Maltako plazeraren uharterako bidaia. Egonaldi luze samar hartan, ordu gutxiko ogibide baten truke eta aurrezki apurrei esker, bizimodu apalera egokitzeari buruz dihardu batez ere. Espazioa eta denbora eta bien arteko lotura zuzena ederki uztartzen dira saiakeran.

Horrek guztiak beste galdera bat piztu dit: ba al dakigu ezer

egin gabe egoten? Egonean egoten jakitea ez ezik, alhadurarik gabe ezer ez egitea da umetatik produktibitateko hezten gaituzten egungo gizarte honek duen gainditu gabeko irakasgaia. Zer esango dute gainerakoek ezer egiten ez badut? Horren inguruan eta itxuraz antzuak diren alorren defentsan maisutasunez dihardu zendu berri den Nuccio Ordine humanistak *Alferrikakoaren balioa* manifestuan.

Esamesak saiheste aldera, oporretan ere zerbait egitera beharturik gaude; ikusi beharreko lekuetan argazkia atera eta sareetan bolo-bolo zabaltzea, esaterako. Lantokian gure hutsuneak justifikatzeko agiriak (medikuareneko nahiz beilatokiko harreragilearenak) erakutsi behar ditugun bezalatsu jokatzeko duen oporretan ere ikasitako irribarrez ateratako argazkietan. Horien helburua, gehienetan, ezagunei gure gozamena egundokoa dela erakustea besterik ez da. Benetan gogoak ematen diguna egiten dugu ala, aitzitik, guregandik espero dena?

**BENETAN GOGOAK
EMATEN DIGUNA
EGITEN DUGU ALA,
AITZITIK, GUREGANDIK
ESPERO DENA?**

Horren harira, beste liburu bat ekarri dut gogora: Annie Ernauxen *Argazkiaren erabilera*. Bertan, bere egunerokotasuna osatzen zuten irudiei erretratua ateratzen, hala maitalearekin egondako bezperako afari arrastoei nola lurrean botatako jantziei. Itxuraz huskeriak liratekeen irudi horiek, sareetan erakusten ditugunaz oso bestalde, bizimodu arrunt baten erakusle dira, axolagabekeria ez baita zentsuragarria, ezta beti gaitzesgarria edo duintasunik gabea ere; aitzitik, Ernauxek argi erakusten duenez, askatasunaren isla izan daiteke. Bost axola bizimodu tarteka eragabe bati buruzko liburu bat idaztea, eta milaka irakurlerekin bat egitea.

Bat-batean, beste liburu bat bururatu zait, Patti Smith abeslari eta idazlearen azkena: *Egunen liburua*. Egilearen Instagram kontuko argazkiak biltzen dituen kontakizun hori ere intimitatean ardatzen da. Beste norbaiten goizeko lehenengo kafea ikusteak edo katuaren konpainian irakurtzen dituen liburuak ezagutzeak irakurleoi eragiten digun gozamenak gizatiarragoak bihurtzen gaitu, bai idazlea bai irakurlea. Akaso, zerbait egin ahal izateko pertsona jakin bat eta bizitzako une zehatz bat besterik ez ditugu behar. ■

BADATOR UDA!

Eskuratu GUKA produktuak



GUKA

Informazio guztia: www.maxixatzen.eus/denda/

'Lex iniusta non est lex'



AITOR ARRUTI

Legearen helburua justizia ezartzea izanik, justua ez den legea ez dago bete beharrik. Hala ulertu izan du zuzenbide naturalak menderik mende, mundu osoko legegileen eta filosofoen hitzetan mamituta. Bat aipatzen hasita, Tomas Akinokoak zioen lege bidegabeek ez gaituztela kontzientziaz lotzen, egunerokoan bete beharreko arauak baldin badira ere. Lege bidegabea ez da lege, gure kontzientziak onartu ezin duen legeak ez baitu kategoria hori merezi. Lege naturala ez baldin bada, ez dago obeditu beharrik.

Azkenaldi honetan, lege naturalaren aurkako epai gehiegi eman dituzte hainbat epailek euskararen herrian, euskaldunon kaltetan. Zuzenbide naturala jarraitzekotan, ez da bidezkoa leku jakin batean hitz egiten den hizkuntza bat askatasunez erabiltzeko oztopoak ezartzea, mugatzea, debekatzea. Hizkuntza bati lotutako jendartearen baitan, hizkuntza horretan hitz egin nahi duen hiztuna ez da ezer inposatzen ari. Alderantziz, hori eragozten diona da jendea bidegabe behartzen ari dena, eragozten duena da inposatzailea, ez habitat naturalean hizkuntza erabili nahi duen hiztuna. Euskaldunok non aritu behar dugu, ba, euskaraz natural, Euskal Herrian ez baldin bada? Gizalegea da hori, eta lege

naturala ere bai, nahiz eta gezurraren ahoak hiztuna inposatzen ari dela milaka bider errepikatu. Gezur makurrak dira horiek, eta horiek ez sinesteko eskatzen digu nola zuzenbide naturalak, hala zentzunak.

Kontuak kontu, zuzenbide naturalaren aurkako epaileek berdin jarraituko dute, lege bidegabeetan oinarrituta, gaztelaniadun elebakarrak are gehiago ahalduntzen. Eta gaztelaniadun elebakarrak eskubidea izango du hizkuntza ahaleginik txikiena ere ez egiteko. Bi, hiru, lau, bost hizkuntza ikasi dituenak, ordea, erabili nahiko lukeen mintzaira baztertu beharko du, elebakarrek espainolez egiteko. Bestelako kasuak badira elebakarren artean, baina konta ahalakoak. Hala izan da lehen, halaxe da orain.

Orain dela gutxi, alboan izan nuen gizon talde bat, bospasei euskaldun eleaniztun, bi gaztelaniadun elebakar. Esan beharrik ez zer hizkuntza zerabilten guztiek, bakoitzak ahal bezala. Ez zirudien espainol elebakarrak batere gaizki sentitu zirenik solaskideek beraientzat ezinbestean espainolez aritu beharra izan zutelako. Horrela ohitu ditugu, normala iruditzen zaie gehienei, naturala, legeak arrazoia ematen die gainera. Lege naturalak, oster, ez, bide zuzeneko zuzenbideak ez. Eta lege naturala ez dena, ez dago obeditu beharrik. ■

Bertsoa paperean

Gaia: Eta zuk, zer egingo duzu?
Izena: Eneritz Artetxe
Doinua: *Beste bateko inularretan*

Bi puntu egin omen du behera
euskararen erabilerak
malgu izateko aukera asko
ematen baitu hizkerak,
soberan daude "zergatik?" eta
harridurazko galderak,
gaitasunetik harago doaz
norbanakoen aukerak.

Kontzientziak astintzen bada
aurrera begira lanik,
euskaldunegi sentitzen gara
askotan harro esanik:
"herri euskalduna da Azkoitia,
berez eta betidanik",
ez du esan nahi, ordea, hala
betirako izango danik.

Miele

20 URTERAKO
DISEINATUTAKO
ETXETRESNA
ELEKTRIKOAK

Bestizako lantza

**MILAR
LARRAMENDI**
Etxetresna elektrikoak

Julo Urkijo Hiribidea, 16
20720 Azkoitia - Gipuzkoa
943 851 897

Chef
**Cooking
& Chef**
Cooking & Chef




TK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • fk@fkgraf.com



URRATEGI

INTERIORISMO

barne diseinua

PROIEKTUAK
OBRAK
BARNE DISEINUA

www.urrategiinteriorismo.com
Azpeitia Arretxe 9 Eibar Aragoeta 27